

TOKIKOM

2022ko azaroa | 230. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Ozenki

PamelaPalencianoTotiMartinezdeLezeaPozgarri25Urte



OAKLAND

INGELES AKADEMIA (ZAMUDIO)
LEIZAOLA LEHENDAKARIA ENPARANTZA 2 / 946 522 857



LILIAK LORADENDA

(DERIO)
ERDIKO KALEA 2 / 944 541 223



ZUK
EGITEN DUZU
Txorierrri!



agrojardin
Astikene





AGROJARDIN ASTIKENE

TRESNAK SALTZEA ETA
KONPONTZEA (DERIO)
BERESI KALEA 23 / 944 540 652



BIZKARGI

TABERNA (DERIO)
URKIOLA KALEA 6 / 944 541 655

-  **6** Iritziak
-  **7** Laburrak eta albisteak
-  **11** Gerentzia berria, BANeko ostalaritzan
-  **12** Gurean izan da... Pamela Palenciano, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Roman Maldonado, palista
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz... Mundu megalitikoa
-  **20** Gai nagusia... Euskaraldia eta Euskararen Eguna
-  **24** Euskararen erabilera, Lezaman eta Larrabetzun
-  **26** *El maizal*, Toti Martinez de Lezearen azken lana
-  **28** Txorierriko udalen aurrekontuak
-  **30** Taldeak... Pozgarri klubak 25 urte bete ditu
-  **32** Emaus... Herri-unibertsitatea
-  **33** Herbarioa... Urrezko makila
-  **34** Teknologia
-  **35** Aikorrizketa... Egun on. *Buenos días*
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Pamela Palenciano, aktorea



26 *El maizal*, Toti Martinez de Lezearen azken lana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Igor Elordui, Izarne Agirre, Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Jose Luis Barrenetxea, Joanes Camara, Xabier Diaz, Idoia Andres eta @txiribitakosmeo

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Baires

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Shvets production (www.pexels.com)

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Asaldatzeko garaia

Escribo las primeras líneas de mi artículo en castellano, con la esperanza de que se den por aludidas las personas que no saben euskera y que jamás han hecho un mínimo esfuerzo por aprenderlo, las personas que aun sabiendo lo suficiente para entenderlo nunca nos han dicho a las que queremos hablar en euskera “tranquilos, tranquilas, podéis hablar en euskera entre vosotros” y, sobre todo, a las personas que lo saben pero no lo hablan nunca, o casi nunca, ni en casa, ni en el trabajo, ni con los amigos... Porque lo que ocurre ahora con estas líneas que escribo en castellano en esta revista es, precisamente, lo que está ocurriendo en las calles y en las casas de los pueblos de nuestro valle: el castellano está ocupando el espacio que hasta hace poco ocupaba el euskera.

Zeren eta Artzeren esaldi famatu hura, “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”, ez baita guztiz egia;

hizkuntza bat bai galtzen da ez dakitenek ikasten ez dutelako, eta baita ere, jakina, dakitenek ez dutelako hitz egiten. Nabardura egitea komeni da hemen: nekez sentituko du ez dakienak –berdin dio den laguna, bikotea, seme-alaba edo lankidea– ikasi edota egiteko beharra, jada dakienak egiten ez badio.

Eusko Jaurilaritzako VI. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, Txorierriko biztanleen ia erdia da euskalduna; beraz, pentsatuko dugu euskaraz berba egiteko gai. Kale Neurketaren Txorierriko datuen arabera, baina, Txorierri % 10,7 egiten da euskaraz kalean. Hau da, 10 elkarrizketetatik bat, gehienez bi, baino ez dira euskaraz. Egia da herritik herrira desberdinak direla datuak, baina guztietan egin du nabarmen behera euskararen erabilerak. Ez dira harro egoteko moduko datuak.

Pasa den hileko Aikor!-en argitaratu zituzten datuok, eta azalean honako lerroburu hau ipini zuten: HAUSNARTZEKO GARAIA.



IGOR ELORDUI
Kazetaria

Eta aurtengo Euskaraldiaren lema HITZEZ EKITEKO GARAIA da. Beti ulerkor, beti enpatiko, beti asertibo... Niri, egia esan, iruditzen zait ASALDATZEKO GARAIA ere badela. Ze, hemen, beti-betikook hausnartzen dugu, beti-betikook ekiten diogu hitzez eta egitez. Noiz hausnartu behar du-te euskaraz egiten ez dutenek? Noiz ekingo diote hitzez euskararen aldeko diren guzti horiek? Eta zeri begira daude agintariak, gizartea aldeko baldin badugu, auziari benetako ausardiaz heltzeko?

parra dugu geure kokapen fisikoko zein mentaleko erreferentziazko ardatza; iparrak bizitzako helburu potoloak markatzen ditu, eta beraz, geure bidea zuzendu. Noraezean gaudenean zentzumen guztiak aktibatzen ditugu bide berriak aurkitu eta aurrera egiteko. Hegoak haize epela dakar; mendebaldea, aldiz, arrotza da; eta ekialdea... gure ekia, argitasuna, esperantza.

Txorierriko euskararen kale erabileraren emaitzak atera dira duela gutxi, eta aukera ematen digute hainbat mahai-inguru egin eta datuak nahi beste ertz eta faktore aztertuz interpretatzeko. Baina, geure memoria bisualean grafiko batek argi erakusten digu txorierritarrok sentitzen duguna: % 50 Larrabetzu; % 20 Lezama; % 8 Zamudio; % 4 Derio eta Sondika; % 2 Loiu.

Ekialdeko haizeak... Hitzez ekiteko garaia da



IZARNE AGIRRE
Irakaslea

Sentitzen dugu ekialdeko haizea indartsu sartzen dela bailaran eta indarra galduz doala. Eguzkiak lehenago eta indartsuago argitzen dituela ekialdeko eremuak. Eta horretan jartzen dugu geure esperantza.

Bestalde, esperantza norabide argirik gabe... Gure iparra zein den argi badugu, hitzez ekiteko momentua da. Euskarak ez du esperantza bakarrik behar; ekintzak behar ditu (ez bakarrik dirua jarri eta ekitaldiak antolatu), momentu polita hausnarketez haratago, hitzez eta ekintzez ekialdeko argiak mendebaldea (Larrabetzutik Loiu) euskaraz argitzeko.





Larrabetzu 2. tarifa-eremuan sartuko da abenduaren 1ean

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (CTB) Larrabetzuko Udalari jakinarazi dionez, udalerriko tarifen zonakatzea aldatzeko izapideak egin ondoren, Larrabetzu 3. tarifa-eremutik 2. tarifa-eremura pasatuko da abenduaren 1ean. Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkatea pozik azaldu da. Gogora ekarri duen moduan, 2020an lehen gutuna bidali zuten Bizkaiko Foru Aldundiara, Larrabetzu 2. tarifa-eremura aldatzeko eskatzeko, eta harrezkero prozesu luzea izan da aldaketa lortzeko.

“Batzarrak egin ditugu CTBekin eta Aldundiarekin, eta herri-mobilizazioa ere, herriko gazteen gidaritzapean, oso inportantea izan da. Lorpen garrantzitsua da, 2. tarifa-eremura pasatzeak % 25 aurrezteko ekarriko dielako Bizkaibuseko erabiltzaileei”, esan du Gazteluk. Beste aldetik, aipatu du Txorierriko herria izanda ez zuela logika handirik Larrabetzu 3. tarifa-eremuan egoteak. Horri lotuta, Garraioa Irauli Larrabetzuko plataformak askotan adierazi duenez, larrabetzuarren ohiko jarduna eskualdeko herrietan eta Galdakaon izaten da –azken hori ere 2. tarifa-gunean dago–, eta herriko ikasleek egunero hartu behar izaten dute autobusa, Derioko instituturara

eta Politeknikara joateko; Galdakaon, al-diz, anbulatorioa eta ospitaleko mediku-zerbitzuak dituzte.

Azken hilabeteetan plataformako kideek hainbat ekintza egin dituzte Larrabetzun bertan zein Foru Aldundiaren aurrean, tarifa-eremuz aldatzeko eskatzeko. “Urtebete eta hilabete eta gero, lortu dugu jasaten dugun injustizia ekonomikoa bukatzea”, aipatu dute. Hala ere, duela hilabete egindako adierazpenak berretsi dituzte. “Borroka hasi genuenetik Partzuergoak ez digu inolako erraztasunik jarri; bakarrik trabak. Batetik, birritan zin egin ziguten zonalde-aldaketa egingo zela, ekainean eta irailean, eta ez zuten hitza bete. Bestetik, ez dugu inolako informaziorik eduki, eta ez diete gure deiei eta emaileri erantzun”. Era berean, gogoratu dute urrian Aldundiaren aurrean egindako elkarretaratzean ertzaintzak haietako bat identifikatu zuela. “Finean, aldaketa herritarrok lortutako garaipena da, borroka, herri-mobilizazioak eta desobedientzia ezinbesteko oinarriak izan dituenak”. Plataformak eskerrak eman dizkie prozesuan babesa adierazi dioten eragileei eta mugimenduei.

Berbalaguneko telefono-zenbakia aldatu da



Berbalagun egitasmoaren arduradunek jakinarazi dutenez, telefono-zenbakia aldatu egin dute eta hemendik aurrera zenbaki honetara deitu

beharko da haiekin harremanetan ipintzeko: 660 270 706 (Patxi). Berbalagun egitasmoak euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta euskaraz egin nahi duten pertsonak elkartzen ditu. Talde txikietan eta astean behin, parte-hartzaileak batzen dira paseatzeko, kafe bana hartzeko, mendira joateko edo bururatzen zaiena egiteko; hau da, euskaraz aritzeko eta bizitzeko.

Seinaleztapena hobetu da Ugaldegurenen, Derion

Derioko Udalak jakinarazi duenez, Asua kalearen eta Santo Domingo etorbidearen arteko bidegurutzeko seinalaztapena hobetu du Ugaldeguren industrialdean, bide-segurtasuna handitzeko. Zehatz-mehatz, mugarriak erabilia gune bat atundu da, eta gorri margotu, ibilgailuak astiroago joan daitezkeen eta oinezkoek hobeto ikusteko. Era berean, oinezkoentzako pasaguneak handitu dira eta soinu-seinaleak ipini dira haien inguruan. Udalaren esanetan, eremuko segurtasuna handitzeko lanek erantzuna eman diote herritar batek egindako eskaerari.

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaitza, 74
48196 Lezama

TABERNA GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Espainiako Lurralde Politika Ministerioak iragarri zuen espazio-agentzia hartzeko hautagaiak diren herrien zerrenda, eta haien artean Zamudio dago, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea hain zuzen. Espainiako Gobernuak 2030ean ipiniko du espazio-agentzia martxan eta 500 milioi euro bideratuko ditu horretara.

Guztira 21 hautagai daude, eta egoitza aukeratzeko, hainbat ezaugarri hartuko dira kontuan, hala nola garraibideak, inguruko hotelak eta enpresa- eta hezkuntza-sektorea dinamikoa izatea. Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak adierazi duenez, "Espazio-industria eta ekosistema zientifiko eta teknologiko garrantzitsua dugu Euskadin. Horregatik, gurea egoitza egokia izango litzateke". Bere esanetan, Euskadik apustu sendoa egin du espazio-ikerketaren alde. Horrela, bada, ITP enpresaren % 6 erosi, eta hitzarmena sinatu du Airbus enpresarekin, digitalizazioa eta jasangarritasuna lantzeko. Era berean, le-

Zamudio dago Espainiako NASaren egoitza izateko hautagaien artean



hen mailako gaitasun eta azpiegitura zientifiko eta teknologiko garrantzitsuak ditu, esaterako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea. Bestalde, HE-

GAN Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Kluster Elkarteak ordezkatzen du euskal espazio-sektorea, eta bertan 68 elkarte eta 14.000 langile daude.

Luis Vazquez derioztarrari esker ona erakutsi diote arte martzialak zabaltzeko egindako lanagatik

Zapatuan, azaroak 19, ekitaldia egin zen Torrejón de Ardozen, Madrilen, arte martzialetan aurtien nabarmendu diren kirolariak eta maisuak saritzeko. Luis Vazquez derioztarrak urteak daramatza arte martzialak irakasten, eta ekitaldian esker ona erakutsi zioten horiek zabaltzeko egindako lanagatik eta ahaleginagatik. Maisua izateaz gainera, Vazquezek hainbat titulu lortu ditu bere kirol-ibilbidean zehar; esaterako, 2019an Arte Martzialen Ireki Nazionala irabazi zuen defentsa pertsonal arloan eta maisuen kategorian.

Beste aldetik, ekitaldian bere irakasleetako batzuek ere saria jaso zuten. Hauexek dira: Maitane Castañeira, Enzo Vazquez y Aaron Hernandez. Arte Martzialen Europako Erakundeak (OEKAM) eta Internacional Military Policek (IPM) antolatu zuten ekitaldia. Saria Cristina Alvarez kajukenbo munduko txapeldunak eman zion.



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Goiri

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Ionja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Larrabetzuko baserrien eta etxeen izenak jaso dituen liburua idatzi da

Larrabetzuko baserriak eta etxeak liburua idatzi du Labayru Fundazioak, Larrabetzuko Udalak babestuta. Lanaren helburua da herriko baserrien eta etxe zaharren izenak, hau da, toponimoak, berreskuratzea eta gizarteratzea. Udalak bertsio digitala zabaldu du, eta herritarrek iruzkinak, ekarpenak eta zuzenketak egin ahaliko dituzte alkatetza@larrabetzu.eus helbide elektronikora idatzita. Azken eguna abenduaren 18a izango da.

Liburua Ziortza Artabe eta Jaione Bilbao Labayruko kideek idatzi dute, hainbat herritarren laguntza izan dutela; haien artean daude Sabin Arana, Joseba Etxebarria, Juan Antonio Zorrozueta, Libe Loroño eta Mari Carmen Gomez. Baserrien katalogoa da eta fitxa batean jaso dira eraikin bakoitzaren datuak, hala nola argazkiak eta ezaugarriak. Liburua bizkaieraz idatzi dute, eta baserrien izenak jaso dira ahoskatzen diren moduan zein idazten diren moduan. Gainera, baserriak mapa batean kokatu dira, auzoz auzo. Udalaren esanetan, liburuari esker "hobeto



ezagutuko dugu lehengo Larrabetzu eta gaur egungoa. Lana baliagarria izango da herria gehiago maitatzeko eta bihurtzeko Larrabetzu egiteko".

Aiala Uriarte Gordon sondikoztarrak irabazi du Emakume Master Cup txapelketa

Sondikoztarra Emakume Master Cup Lau eta Erdiko Txapelketan ibili da promesa kategorian – pilota mistoa –, eta emaitza garbia lortu zuen finalean, Enara Anitua aulestiarrari 18 eta 2 irabazita. Uriarte Lezamako Pilota Klubeko pilotaria da, eta Gordexolan lortutako garaipenak argi eta garbi utzi du pilotan etorkizun handia duela.

Hamalau urte baino ez dituen arren, sondikoztarra pilotan aurrerapauso sendoak eginez dabil. Izan ere, iaz Bizkaia Cup Txapelketa irabazi zuen gozo kategorian, baita Emakume Master Cup Binakako Txapelketa ere. Gordexolako finalean Anituak lortu zuen lehen tantoa, baina handik aurrera sondikoztarrak ez zion arerioari irabazteko aukerarik eman. Nolanahi ere, Anitua ez da pilotari makala, urrian Hiru Hiriburuak txapelketaren finalista izan zen eta.



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Begoña Torrontegui da azaroko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.

Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2 EGUNERO
635584941 8:00-22:00

KURREGOITI JATETXEA

Laurrota etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantleuregoiti.com

elekma

LURRAZPEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

Leherengoa-mariak • Freziorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierr etorbidea, 25-3.N. 48180 Lodu
T: 944 599 232
www.elekma.es

Zamudioztarra hirugarrena gelditu zen sailkapen orokorrean, beteranoen kategorian. Lazarok ez zuen saiorik irabazi; hala ere, erregularitasuna da bere ezaugarri nabarmenena eta horri esker lortu zuen podiumera sartzea. "Hirugarren postua ilusio handia egin dit. Gazteak gogotsu dabilta, baina eskarmentua dela eta izan naiz arrakasta lortzeko gauza".

Txapelketa sei saiok osatzen dute: bi saio Coruñan egin ziren; beste bi, Leónen; eta beste bi, Gironan. "Gogorra da, asteburu osoa txapelketan ematen delako. Gainera, ni ez naiz profesionala eta astelehenean goiz altxatu behar dut lanera joateko. Zorionez, familiak babesten nau eta beste batzuek ere laguntza ematen didate, hala nola Zamudio Racing Elkartek eta Motos Garciak. Izapideak egin behar dira eta kirol garestia da, urte osoan motorra zaindu behar delako, eta denboraldia amaitzen denean, hura aldatu. Baina, tira, zaletasunagatik egiten dut eta pozik nabil".

Lazarok 54 urte beteko ditu abenduan, eta Beteranoen A kategorian lehiatzen da; hau da, 35 urtetik gorakoen kategorian. Beteranoen B kategorian, aldiz, 45 urtetik

Iñigo Lazaro, hirugarrena Espainiako Trial Txapelketan



gorakoek hartzen dute parte. "Nire kategoria zailagoa da, motor-gidariak gazteagoak direlako. Gainera, profesional ohiak ere baditugu, esaterako, Carlos Casas edo Toni Ramonet. Maila oso handia da eta lehia bizia dugu, batez ere lehenengo

boston artean". Zamudioztarrak ez du oraindik erabaki datorren urtean lehian sartuko den. "Neketsua da eta ni gero eta nagusiagoa naiz; hala ere, beti esaten dut ezetz, eta azkenean beti hartzen dut parte".

Beste biribilgune bat egingo da Derion, Txorierri Etorbidean

Udalak jakinarazi duenez, helburua da bide-segurtasuna hobetzea. Biribilgunea Larrabari ibilbideko bidegurutzean eraikiko da hain zuzen, eta bertatik ibilgailu handiak, autobusak kasu, pasatu ahaliko dira eta bertan biratu. Gainera, "zirkulazioa lasaituko da, semaforoak eta ezkerraldeko birak kenduta". Udalak 93.109 euro ipiniko ditu lanetan. Beharrok laster hasiko dira eta, aurreikuspenaren arabera, hilabete

bat iraungo dute. "Derioko komunikazio-bide nagusietako bat da. Egunero auto asko biltzen dira bertan, eta inguruan beste eraikin edo zerbitzu batzuk daude; ikastetxeak, haien artean. Horrek ekartzen du inguruan ibilgailu eta oinezko asko egotea. Biribilgunearen helburua da inguruko komunikazioak berrantolatzea, trafikoa arinduz eta segurtasun handiagoa bermatuz", adierazi du Esther Apraiz Derioko alkatea.



Jostailu-bilketa solidarioa, Derion

Derioko gazte boluntario batzuek jostailu bilketa solidarioa antolatzen dute azaroaren 28tik abenduaren 12ra bitarteko. Jostailuak Kultur Birikan batuko dituzte egun guztietan, jaiegunetan ere, 11:00etatik 13:00etara. Gainera, eguen eta barikuetan arratsaldean ere jasoko dituzte jostailuak, 17:00etatik 19:30era. Batzen diren jostailuak abenduaren 13tik 23ra bitartean banatuko dira. Gazteei laguntza eman dieten Derioko Udalak, Emausek, Novisik eta Apnabik.



Santa Mañe eta eliza lotzen dituen errepidea konponduko da

Lezamako Udalak jakinarazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu dute, Santa Mañe (Vivero) eta Andra Mariren eliza lortzen dituen errepidea konpontzeko. Errepideak 4,3 kilometro ditu eta Aldundiak 693.185,36 euro ipiniko ditu bertan asfaltatze- eta margotze-lanak egiteko. Lezamako Udalak urtea amaitu baino lehen lizitatuko ditu lanak eta espero du lanak martxotik ekainera bitartean egitea. Izan ere, Frantziako Tourreko etapa bat handik pasatuko da uztailaren 1ean.

Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatea oso pozik azaldu da hitzarmena dela eta. "Tourra Lezamatik pasatzea oso albiste ona da udalerrarentzat. Alde batetik, herritarrek munduko kirol-probarik garrantzitsuenetako bat gozatu ahaliko dutelako; eta bestetik, Lezama eta Santa Mañe lotzen dituen errepidea konpontzea ekarriko duelako. Beste behin ere erakundeen arteko lanari esker jarraitu ahal dugu herriko azpiegiturak hobetzen".

Durangoko Azokara joateko doako autobusa Larrabetzutik

Larrabetzuko Kulturbilguneak jakinarazi duenez, abenduaren 8an doako autobusa ipiniko dute Durangoko Azokara joateko. Autobusa 11:00etan aterako da Kutxabank aurreko geltokitik, eta itzultzeko, 20:00etan Landako aurreko autobus-geltokitik. Lekua gordetzeko idatzi egin behar da kulturbilgunea@gmail.com helbide elektronikora.

Hobariak, Sondikako udal-tasetan

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, ez dituzte udal-zerbitzuen tasak eta zergak handituko eta aho batez onartutako hobari hauek ezarriko dira: % 95era arteko hobaria, energia-efizientzia hobetzen duten EILZ tasetan (obra-lizentziak); % 90era arteko hobaria, adinekoen edo elbarrituen etxean irisgarritasuna hobetzeko obren tasetan; % 60ra arteko hobaria, errenta baxuko familientzat, obra txikiak egiteko tasetan; eta OHZren % 50era arte, eguzki-energia edo energia berriztagarriak aprobetxatzeko ekipamendu termikoak edo elektrikoak ipini dituzten eraikinetarako, baita energia-efizientziaren etiketa duten eraikinetarako ere.

Zure antzinako bitxiak ekarrita, urrea berrerabiltzen dugu, zure ametsetako harribitxia sortuz.

...eta forma ematen diogu...

Zure antzinako bitxiak ekarrita...

...urrea urtzen dugu berrerabiltzeko...

...zure ametsetako harribitxia sortuz.

Bitxitegia
Zuluaga
Juan Bautista Uriarte, 49 | GALDAKAO
Tel. 94 456 73 74

Artxandako zabortegia berriro zabaltzeko asmoa du Jaurlaritzak



Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du 2030ra-ko Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, eta horretan hainbat jarduera ezarri ditu hondakin ez arriskutsuen tratamenduaren harira. Haietako bat da Artxandako zabortegia berritzea, 2030era arte hondakinak jaso ditzan. Zabortegia, hala ere, itxita dago gaur egun eta Jaurlaritzak ez du zehaztu noiz zabalduko den. Plana Arantxa Tapia sailburuak aurkeztu zuen, eta, bestalde, aurkezpenean ez zuen aipatu Lezaman zabortegia egiteko dagoen proiektua.

Azaldutakoaren arabera, planaren helburua da, batetik, hondakin ez arriskutsuen isurketa-bolumena nabarmen murriztea, harik eta 2030ean sortutako

hondakin guztien % 15 izan arte; eta, bestetik, 2024tik aurrera baimendutako instalazioek gaitasun nahikoa izatea, Euskadin sortutako isurketa guztia jaso ahal izateko eta kanpora eraman behar ez izateko. Horren harira, aurreikusi da datozen urteetan hurrengo zabortegi hauek egongo direla jardunean: Gardelegi (Ara- ba), Epele eta Aizmendi (Gipuzkoa) eta Igorre, Bistibieta, Betearte, Zalla eta Artxanda (Bizkaia). Hainbat handitze eta zaharberritze eginda, guztien artean 4,7 milioi tona gehiago hartu ahalko lukete. Artxandako kasuan hain zuzen, espero da zaharberritzeari esker 2030erako 150.000 tona hondakin ez arriskutsu jaso ahal izatea. Nolanahi ere, Jaurlaritzaren asmoa

omen da Artxandako zabortegia 2030ean bertan ixtea.

Interpretazio ezberdinak Lezaman

Tapiaren aurkezpenaren ondoren, Lezamako Udalak prentsa-oharra zabaldu zuen, eta Lezaman ez dela zabortegirik eraikiko adierazi. Jon Ander Aurrekoetxea alkatearen esanetan, "Eusko Jaurlaritzaren iragarpenak bat egin du udalak duela hilabete batzuk jakinarazitakoarekin. Beti egin dugu Lezamako ingurumena babesteko apustua, gure balio nagusietako bat delako; baita lezamarren ongizatea babesteko apustua ere. Lasaitasuna helarazi nahi diegu herritarrei, eta gure jarrera berrets: gure herrian halako jarduerak egitearen aurka agertuko gara".

Bestalde, Lezamako EH Bilduk ere kaleratu zuen prentsa-oharra, bestelako irakurketa egin ondoren. "Eusko Jaurlaritzak ez du inoiz ofizialki esan Lezaman ez dela zabortegirik eraikiko. Are gehiago, Tapiaren agerraldian ez da Lezama aipatu ere egin". Azpimarratu dutenez, Jaurlaritzaren hondakin-plana 2030ean bukatuko da, eta helburuak betetzen ez badira, "administrazioak zabortegi berriak baimendu beharko lituzke". Azkenik, adierazi dute joan den hilabetean proposamena egin zutela, udalak Eguskitza baserria eta inguruko bost hektarea erosteko; horiek zabortegiak hartuko lituzkeen 40 hektareen barruan daude. "EAJk proposamena onartuz gero, ondare publikoa garrantzitsua eskuratzeaz gain, han zabortegirik eraikiko ez den bermea behin betiko izango genuke".



Doyaneko taekwondolariak, hirugarrenak Espainiako txapelketan

Aurten, Taekwondo Espainiako Txapelketa egin da Pontevedran, aurrekade- te kategorian. Txapelketan Doyan Derioko klubeko bost kirolarik hartu zuten parte, eta emaitza ezin hobea lortu, emakumezkoen kategorian eta taldeka hirugarrenak izan ziren eta. Doyaneko kideak harro baino harroago azaldu dira euren kirolariez: "Lan handia egiten dabilta, eta ahalegin handia ere, aurreko openetan-eta egindako akatsak zu-

zentzeko eta hobetzeko". Taekwondolariak eta lortutako emaitzak hauexek izan ziren: Ainhize Hernandez, urrea; Maider Romero, urrea; Ainhize Atxutegi, zilarra; Libe Tomas, brontzea; eta Irene Sorocana, final-laurdenak. Bestalde, urriaren 29an kirolariak Pontevedrako Openean ibili ziren, eta proba horretan ere emaitza onak izan zituzten: Romero, urrea; eta Tomas, Sorocana, Hernandez eta Atxutegi, zilar bana.

“Sukaldaritzan zein euskal kulturen ipiniko dugu arreta berezia”



NEREA URIAGEREKA |
BANeko ostalaritza-gerente berria

Gerentzia berria dugu Txorierriko Baserri Antzokiko ostalaritza-zerbitzuan, horren ardura Nerea Uriagerekak hartu berri du eta. Ostalaritzan eskarmentu handia duela, mungiarrek pozik eta gogotsu heldu dio erronka berriari eta profesionalen talde ona hartu du inguruan.

t/a: Itxaso Marina Ondarroat

Beste norabide bat eman nahi diozu eskaintza gastronomikoari. Zertan datza zure proposamena?

Garrantzi handia ematen diot sukaldako lanari, eta gustatzen zait jantokian zein barran hura nabarmentzea. Sukaldaritzak tradizioa eta sukaldaritzak modernoa uztartzen ditugu. Sukaldako burua, esaterako, aditua da ohiko sukaldaritzan, baina lantaldean gazteak ere baitugu, gure plateretan egungo teknika berriak ere erabiltzeko.

Nolako eskaintza egiten duzue?

Pintxoak gainera, eguneko menua dugu. Hori zortzi platerak osatzen dute, eta azpimarratu behar da egunero plater ezberdinak egiten ahalegintzen garela; hau da, Baserri Antzokian hasi garenetik ez dugu ezta plater bat ere errepikatu. Gau-

***"Baserri Antzokian
hasi garenetik ez
dugu ezta plater
bat ere errepikatu"***

za berriekin saiatzea gustatzen zait, eta lantalde osoaren ideiak kontuan hartuta osatzen dugu menua. Bestalde, menu erdia hartzeko aukera ere ematen diegu bezeroei, izan ere askok lanera itzuli behar dute eta, beharbada, nahiago dute zerbait arinagoa hartu.

Gainera, bakarrik produktu naturalak erabiltzen dituzue, ezta?

Bai, den-dena kozinatzen dugu, saltsak eta postre guztiak ere bai. Azken batean, sukaldaritzak tradizioa dugu oina-

Futbol-zelaitik sutegira

Athleticeko emakumeen taldeko jokalaria izan da Uriagereka, baina 24 urte zituela erabaki zuen futbola uztea. "Garai hartan ez ginen profesionalak eta ez ziguten ordaintzen. Orduan, ostalaritzarako grina beti izan dudanez, heziketa-ziklo bat egin nuen Artxandako Ostalaritza Eskolan. Praktika Derioko jatetxe batean egin nituen, eta egun batean aireportu ondoko hotelaren zuzendaria ezagutu nuen. Hoteleko jatetxea, Urbe jatetxea, hartzera animatu ninduen, eta duela 12 urtetik hona nabil bertan". Mungiarrek Baserri Antzokiko zein Urbe jatetxeke ostalaritza-zerbitzuaren ardura du gaur egun. "Proiektu ezberdinak dira: Urbeko bezeroak hoteleko bezeroak izaten dira, eta Baserri Antzokian aisialdia eta kultura ere dira kontuan hartzeak. Hala ere, filosofia bera dugu gastronomia arloan. Pozik gaude, lan askorekin, baina beldur barik".

rritzat eta hura hain zuzen bultzatu nahi dugu.

Beste aldetik, aisialdiaren arloan ere dituzue hainbat proiektu. Zeintzuk dira?

Sukaldaritzan zein euskal kulturen ipiniko dugu arreta berezia eta, horretarako, soinez soin lan egingo dugu Baserri Antzokiko Fundazioarekin. Asmoa da euskal kultura bultzatzea eta gazteentzako ekin-tzak antolatzea, hala nola kontzertuak, dj-en emanaldiak eta festa tematikoak, aisialdia Txorierri berran eman dezaten eta beste herri batzuetara joan behar izan ez dezaten. Era berean, Txorierriko musikariek euren lekua izango dute Baserri Antzokian, bertan kontzertuak egiteko, eta horri lotuta, gaueko giroa ere sustatu nahi dugu. Ideia batzuk ditugu datozen hilabetei begira; adibidez, abenduaren 1ean, 18:30ean, emanaldia eta solasaldia egongo da Euskal Herrian Euskaraz eskutik.

t: Itxaso Marina

Zelan Txorierriko gazteekin?

Gazteek orokorrean feminismoaren kontrako diskurtsoa dute gaur egun, baina bakarriketak oso harrera ona izan zuen Derion eta, hortaz, eroso sentitu nintzen. Pozik irten nintzen aretotik.

Joera hori duela bost urtetik hona nagusituz doa. Zer dela eta?

Erantzukizuna ez da gazteena, gizarte-sareetara feminismoaren kontrako diskurtso zorrotza eramaten duten helduena baizik. Azken urteotan barruraino sartzen ari da salaketa faltsuen mezua, indarkeria matxista existitzen ez den mezua, feminismoa gizonak deuseztatu nahi dituen txiringitza dela... Ultraeskuinaren diskurtsoa da, doktrinatzaila dena eta feminismoaren xedeari buruz deus ere ez dakiena. *Youtuber* eta *tiktoker* asko ere eurenganutzen dabilta doktrina hori, eta zabaltzen.

Nola erantzun ohi diote gazteek zure bakarriketari?

Neskak nahiko enpatikoak izaten dira eta, zoritxarrez, euren burua ikusten dute planteatzen dizkiedan egoeretan. Hala ere, *feminazi* esaten didatenak ere badaude, "mutilak hain txarrak" ez direla ohartarazten didatenak. Gauza da mezua txarto ulertu dutela, nik ez dudalako uste gizonak txarrak direnik. Mutilek, bestalde, euren kontra nabilela sentitzen dute eta defentsiban ipintzen dira. Ulertzekoa da: ahalegin handia egiten dabilta maskulinitate hegemonikoa eraikitzen eta nik maskulinitate hori kaltegarria dela esaten diet. Haserretu egiten dira. Gainera, etxetik adoktrinatu etortzen badira, askoz okerrago.

Gizarte-sareen eragina aipatu duzu lehen.

Nahiz eta gizarte-sareetan oso feminista onak egon eta baliabideak izan, guk ez dugu lortzen *youtuber* edo *tiktoker* horiek duten eragina. Nik, esaterako,

"Sistema ere bada gure ekintzen erantzulea"

PAMELA PALENCIANO | aktorea

Txorierri BHIko Filosofia Mintegiak antolatuta, Jaének aktoreak eta feministak *No solo duelen los golpes* bakarriketa ekarri zuen Deriora, DBHko 4. mailako Balio Etikoetako eta Batxilergoko 2. mailako Psikologia eta Filosofia ikasleekin indarkeria matxista hausnartzeko.

19 urte daramatzat agertokietan, eta hamaika modutan saiatu naiz nerabeengana ailegatzeko. Azkenean, eurek irakatsi digute nire diskurtso feminista barruan elkar aditze bat marrazten, eta maskulinitatea eraikitzen dabilta diskurtso heterosexualengana errietatik ez ailegatzeko –izan ere, guk maskulinitate-mota horren kontra egiten dugu, bortxatzen eta hiltzen gaituelako–. Ni haiengana antzerkiaren bidez ailegatzeko saiatzen naiz, enpatiaren bidez; hala ere, testuingurua oso gaitza da, eraikitzen

dabilta zerbait zalantzan ipintzen dudalako: gizona eta emakumea nola izan.

Bakarriketa helduen aurrean ere antzeztu duzu. Bestelako erantzuna dute?

Harreman ezberdina da, helduak emanaldira nahi dutelako etortzen dira eta. Nolanahi ere, beti izaten da norbait zer topatuko duen ez dakiena. Hortaz, mezuak haserretu egiten du eta, hausnartzera eta aldatu nahi izatera bultzatu beharrean, gorrotatzera bultzatzen du. Helduentzako emanaldietara batzuk boikoteatzera



Amar
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419



GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06



Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



Hausnarketa

No solo duelen los golpes antzezlanean, bere lehen mutil-lagunarekin izandako bizipena kontatzen du Palencianok: harreman horrek sei urte iraun zuen

eta bortitz bihurtu zen. Bere bizipen pertsonala abiapuntutzat hartuta, umorea, ironia eta publikoarekiko interakzioa baliatzen ditu, indarkeria matxistari buruzko gogoeta egiteko. Era berean, beste pertsona bat indarkeriaz tratatzea ahalbidetzen duten estereotipoen eraikuntza hausnartzen du.

Pamela Palenciano Andaluziako aktorea, komunikatzailea eta feminista da. 2003an *No solo duelen los golpes* egitasmoa ipini zuen martxan. Hasieran argazki-erakusketa izan zen, geroago indarkeriari aurre egiteko tailer bihurtu zen, eta gaur egun antzezlanea da. Palencianok 19 urte baino gehiago daramatza egitasmoa ikastetxeetara eta aretoetara eramaten.



“Gazteak eraikitzen dabilzan zerbait zalantzan ipintzen dut: gizona eta emakumea nola izan”

gure ekintzen erantzulea, enpatia erabat galtzen dugunean, beste bat suntsitzen dugunean, hiltzen dugunean... Oso esperientzia gogorrak izan dira kartzelaren barruan, baina gustatzen zait han lan egitea.

Azkenean artxibatu diren salaketak ipini dituzte zure kontra, jazarpena jaso duzu gizarte-sareetan, hilko zintuztela esan dizute... Nola daramazu hori guztia?

Oso beldurgarria da; ez dakit nola jasan ahal dudana... Zorte handia dut alboan talde zoragarria eta asko maite nauen jendea dudalako, eta adorea ematen didate. Baina, egia esan, El Salvadorren –munduko herrialderik bortitzenetakoa da– bizi nintzenean baino beldur handiagoa izan dut: pentsatzen nuen edozein momentuan baten bat nigana hurbildu ahal zela eta bultzatu ahal ninduela, edo istripua eragin... VOXek testuingurutik atera zituen nire hitz batzuk, eta horri lotuta egon da nire kontrako kanpaina. Bueno, gauzak patxadaz hartzen nabil pixkanaka-pixkanaka, lanean jarraitu nahi dudalako. Bakarriketaz gainera, sistema zalantzan ipiniko duten beste lan batzuk taularatu nahi ditut, eta erosoak ez diren gaiak hizpide izan, hala nola familian gertatutako sexu-abusuak eta amei seme-alaben zaintza kentzea. Bestalde, bost urte daramatzat jazarpen hori jasaten eta jadanik nolabaiteko ezkutua-edo dut. Edonola ere, nire lana batzuei gustatzen ez zaiela onartuta daukat, eta lanean jarraitu nahi badut, jazarpena, mehatxuak... ere haren parte direla onartu behar dut.

etortzeari beldur izan ohi diot, baina gazteak gehiago haserretzen dira, lehen aipatu moduan, ahalegin handia egiten dabilzalako gizarte-sareetan eta pelikuletan ikusten duten erara gizon eta emakume bihurtzeko; nik, aitzitik, esaten diet gizona eta emakumea izateko modu hori kaltegarria dela.

Kartzelan ere antzeztu duzu bakarriketa; mezua ondoen ailegatzen den lekuetako bat dela uste duzu.

Aurrean izan ditut bikotekidea hil duten gizonak, tratatu txarren emakeak

direla onartzen ez dutenak... Feminismoaren kontrako diskurtsoa barneratuta dute oso, eta gaiztoak haiek diren diskurtso politikeroa ere bai... Elkarrengandik urruntzen gaitu horrek. Hala ere, El Salvadorreko zein Espainiako kartzelatan sentitu dut gorputzez gorpuz eta bihotzez bihotz arituz gero, jendea aldatu daitekela. Ni kartzelan ez naiz inoiz erasoen beldur izan; ni hau edo bestea ekidin ahal zela esatearen beldur izan naiz. Izan ere, erantzukizuna ez da bakarrik gizabanakoarena: sistema ere bada

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

CK

OAKLAND
ENGLISH

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Fustoren ikasle aurreratua

t. Gaizka Eguzkitza

"Betidanik jokatu dut pilotan. Txikitan, lagunak futbolean jokatzen zuten; nik, aldiz, pilotan, arraroa nintzen. Ez naiz inoiz beste kirol batean aritu, bakarrik palan. Argentinan, ETBren euskal katearen bidez, euskal palistak ikusten nituen eta noski, Pablo Fusto argentinarra nire idoloa izan da betidanik. Hemengo palista izan nahi nuen, ametsa zen niretzat". Roman Maldonadok aurten bete du bere ametsa: Esteban Gaubeka handiaren aurka egin zuen debuta pala profesionalean. Galdu zuen, "zelan ez", baina pozik agertu da Maldonado. Lehenengo urratsa baino ez da izan.

Aurten, txapelketa profesionalak jokatzen jarraitu du eta lehenengo garaipena ere etorri da. "Urrezko Pala irabazi dut Urrutiarekin batera. Munduko bikoterik onenei irabazi genien: Fusto, Gaubeka, Ibai Perez... Gaur egun, Kutxabank Liga nabil jokatzen Ibai Perezekin. Ligaxkan lehenengo postuan bukatzen badugu, finalerako txartela lortuko dugu. Ikusiko dugu. Gaztea naiz, hobetzen nabil eta baikorra eta anbizio handia dut. Pilota dut lehentasun".

Gaztea bada ere, etorkizun handia du eta, noski, Fustorekin konparatzen dute. "Biok gara argentinarrak, fisikoki antzekoak... Fusto mitoa da, oraindik ez nago maila berean. Harrotasunez esan behar dut idoloaz gainera, nire laguna ere badela. Berak primeran hartu nau, baina gainerakoek ere bai. Gaubekak beldurtu egiten du kantxa barruan zein kanpoan, baina itxura baino ez da. Eta hemendik gertu Asier del Río dugu. Oso harreman polita daukat berarekin, lezamarra izan arren, Larrabetzun egun osoa ematen duelako. Beti elkarren kontra jokatu dugu, irrikan gaude elkarrekin jokatzeke".

*"Txikitan, Argentinan,
lagunek futbolean
jokatzen zuten;
nik, aldiz, pilotan,
arraroa nintzen"*

ROMAN MALDONADO | palista profesionala

Pablo Fusto historiako palistarik onenetakoa da. Fusto argentinarra da eta badirudi bere herrian berak landatutako hazia Txorierrin loratu dela. Izan ere, Roman Maldonado argentinarra Larrabetzura etorri zen, bere ametsa egia bihurtzeko: txikitan palista profesionala izan nahi zuen eta aurten lortu egin du.

Profesionala egiteko, argentinarrak jokatzeke eta entrenatzeko hemengo erara moldatu behar izan du. "Argentinan, pala arinagoa da: 400 gramo pisatzen du, ez kilo bat, hemen moduan. Eta pala hain pisutsua denez, ezin da frontoian nahiko genukeen beste ordutan entrenatu, eta gainerako egunetan ariketak egiten ditugu gimnasioan. Eta horregatik, palan, beste kirol batzuetan baino motelago egiten dituzu aurrerapausoak. Gainera, pilota gomazkoa da, ez larruzkoa".

Munduko Txapelketa

Maldonado hasiberria da pala profesionalean, baina esperientzia handia du Munduko Txapelketetan. Lehendabizikoa 2016an jokatu zuen, 16 urte zituela. Bosgarren postuan gelditu zen bertan. "Emitza ederra izan zen: batetik, lehenengoa zelako; bestetik, Fusto eta Innpala enpresako kideak han ezagutu nituelako. Lehia horretara pilotari gazte bila joaten dira eta esan zidaten etorkizun handia nuela eta nagusiagoa nintzenean





agian profesionala izateko aukera izango nuela. Ilusio handiz hartu nuen".

Harrezkero, 2017an, 22 urte azpiko munduko txapelketa irabazi zuen Agustin anaiarekin. Era berean, 2021ean, lehendabiziko aldiz irabazi zion Espainiako selekzioari; eta aurren, debuta egin du senior kategorian eta zilarrezko domina lortu du. Hurrengo, 2026an, Argentinan egingo da eta Maldonado gogotsu dabil. "Lege berria dela eta, baliteke Euskal Herriko selekzioak horretan parte hartzea".

Venado Tuertotik Larrabetzura

Roman Maldonado 1999an jaio zen Argentinan, Venado Tuerto herrian. Romanek palista profesionala izan nahi zuen. Bere herrian krisi ekonomikoa zegoen. Beraz, duela lau urte, familia osoak Bordeleko bidea hartu zuen, eta urte bi beranduago, Larrabetzura etorri ziren. Goizean, Zamudioko biltegi batean egiten du lan, eta arratsaldeetan, entrenatzera joaten da Bilbora.

"Venado Tuertok 75.000 biztanle ditu eta herri lasaia nahiago genuen. Larrabetzu paregabea da: jendea oso jatorra da, herria berehala ezagutzen

da, larrabetzuarrek gu ere ezagutzen gaituzte... Poz-pozik gabiltza, hemen goek oso harrera ona egin digutelako. Neska-laguna hemengoa da eta berak ere izugarri laguntzen dit euskararekin".

Maldonado ez da Larrabetzura bakarrik etorri. Familia berarekin bizi da eta anaia biak ere palistak dira. "Nagusia, Facundo, Italiaren izenean dabil lehian sartzen nazioartean, familiak erro italiarrak dituelako. Eta hemen zaletu mailan dabil; Agustin, ertaina, ez da profesional mailan aritzen, baina Bizkaiko Federazioaren teknikari dabil".

Maldonadok garrantzia eman die munduko txapelketei, baina bere esanetan, ez dute zerikusirik pala profesionalarekin. "Mundiala urterik behin jokatzen da, baina guk zapaturo jokatzen dugu onenen kontra: Fusto, Gaubeka, Necol... Eta horri esker, gure mailak etengabe egiten du hobera". Eta hori egin nahi du

gazte argentinarrak, hain zuzen ere, "gero eta palista hobea izan". "Ziur nago gogorlan egiten jarraitzen badut, arrakastak etorriko direla. Datozen lauzpabost urteotan banakako txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake. Pilotariok munduko txapelketa esaten diogu. Binakakoa ere lortzea ondo legoke".

HEGAN

egiteko aukerak

 **TXORIERRI**
POLITERNIKA (KASTEGIA)
S.COOP

**BATXILERGOA ETA
LANBIDE HEZIKETA**



Eman izena!
www.txorierrri.net



"Si no os importa, lo explico en castellano, que así terminamos antes". Zenbat aldiz entzun ote dugu esaldi hori edo antzekoren bat? Bitxia da horrelakoak esaten dituztenak, euskaldunak izateaz gain, euskaltzaleak ere badirela neurri handi batean. Baina ahaldundu gabekoak. Oraindik armairutik irten ez diren euskaltzaleak dira. Euskarak, Txorierrin eta edonon, egoera guztietara egokitzen dakiten hiztunak behar ditu. Harro daudenak euren hizkuntzaz. Jendeaurreko leihatila batera heldutakoan euskaraz hitz egiten hasi eta langile erdaldunari, burua makurtuta, *perdona* esaten ez dioten horietakoak. Lagun euskaldunekin, ohiturak ohitura, euskaraz hitz egiteko ausardia dutenak.

Azaroaren 18an heldu zen Euskaraldia, lehorte luze baten osteko euri-zaparrada. Kontuz putzuekin! Abenduaren 3tik aurrera, euri-jasa amaitu eta pozik hartuko dugu euri langarra; irribarez begiratuko diogu gure herriko bazterrak berde mantetzen dituen euri xeheari. Eta ez du atertzeko itxurarik.



Txorierrin luze-zabalean, Euskaraldian ikasitakoa, bizitakoa eta arnastutakoa urte osora eramango dugu. Harroago, ahaldunduago, burua tenteago biziko gara. Lasai egingo dugu euskaraz, etengabe barkamen-eske ibili barik.

Eta euskara nekez ulertzen dutenei ere mesede egingo die Euskaraldiak: "no

sé mucho, pero sigue, sigue, que así hago oído". Eta, pozik esango diegu: *Oído cocina.* Eta ez gara inoiz isilduko.

Oharra: Hizkuntza buru-bihotzetan izatea ondo dago, baina batez ere ahoak eta belarriak behar ditu. Beraz, oraindik ez baduzu izena eman, animatu:

www.euskaraldia.eus

Txorierriko denda eta tabernetan euskaraz!

Gure eskualdeko denda eta tabernetara zoaztenean euskararen lagunaren marka ikusiko duzue. Guztira 155 saltokik hartu dute euskararen aldeko konpromisoa Txorierrin.

Dendetan poltsak, eta jatetxe eta tabernetan ahozapi eta mahaigainekoak banatu ditugu euskararen aldeko konpromiso hori gogorarazteko. 115 denda eta 40 jatetxe daude egitasmoaren barruan, eta horietako erdiak baino gehiagok euskarazko arreta eskaini dezakete.

Beraz, zatozte Txorierriko denda eta jatetxetara kontsumitzera eta euskaraz hitz egitera. Zure establezimendua ere kanpainara batzeko interesa baduzu, deitu 688665112 telefonora edo idatzi merkataritza@txorierrin.eus helbidera.



EUSKARAREN EGUNA TXORIERRI 2022

aurten LEZAMAN

ABENDUAK

2

Euskaraldiaren
bukaerako
ekitaldia
19:15

"Neomak"
20:30



Frontoian



ABENDUAK

3

Ondalan erraldoiekin **diana**
10:30

Ondoren herriko plazan...
euskal jaia!



Familiენტzako emanaldia
18:00



"Barrexerka" gazteentzako
umorezko emanaldia
19:30



"Zirkinik Bez"
erromeria
21:00



Eskolak

AZAROAK

29



Nai malabarista
7-8-9 urtekoentzat



Frontoian



9:30- 10:30
11:00- 12:00

ABENDUAK

1



EUSKAL KARAOKEA

Euskaraokea!
10-11 urtekoentzat

ABENDUAK

2



Motx pailazoa
4-5-6 urtekoentzat



Antolatzailea

Laguntzaileak



t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Zer da megalitismoa? Gure arbasoek Historiaurrean egindako eraikuntzak dira, harrizkoak eta landu gabeak. Batzuk zehaztuko ditugu:

Zutarria edo iruinaria ere deitua, **menhirra** da lurtean zutik jarritako harritzarra. Ez dakigu ondo bere funtzioa zein zen. Mugarria zen? Menditik gidatzen zituen ibiltariak? Kulturen bat?

Gainerako eraikuntzen funtzioa, berriz, –tumuluak, dolmenak eta cromlechak– argi dago eta heriotzarekin zerikusia zuten: garai bateko hilerriak izan ziren.

Tumulua: dirudienez, mendian artzainen bat hilda agertzen zenean, gorpua estaltzen zuten haren gainean lurra eta harriak ipinita. Tontortxo bat sortzen zen, eta, dakigun moduan, azpian gorpua zegoen. Bestalde, harriz eta lurrez estalitako beste mota batzuetako eraikuntzei ere tumulua esaten zaie.

Dolmena edo trikuharria: bizi ziren inguruan dolmenak eraikitzen hasi ziren komunitateak. Helburua zen ganbara bat egitea bertan gorpuk sartzeko. Harriak goitik behera jartzen ziren hasieran (ortostatoak), eta lurrez eta harriz inguratu. Azkenik, harritzar bat –edo gehiago– igotzen zen haien gainean, ganbara estaltzeko. Trikuharri barruan gorpu bat baino gehiago izaten ziren, eta gorpuk ekialdean zegoen ate edo galeria batetik sartzen ziren.

Cromlech edo harrespilak: Burdin Aroan, gorpuk ehorzteko modua alda-



Kurtzeganeke Menhirra (Gorbeia)

tu zen. Gorpuk erre egiten ziren, eta errautsak harriz egindako toki txikietan lurperatu; inguruan beste harri batzuk jartzen ziren borobilean. Ez dakigu zein erritu erabiltzen zuten, baina argi dago sinbologiaz beteriko lekuak direla.

Uste da menhirrak, tumuluak eta dolmenak orain dela 3.000-5.000 urte eraiki zirela, Brontze Aroan; Cromlechak berriagoak dira, Burdin Arokoak, Kristo aurreko 800. urtetik aurrerakoak.

Mundu osotik barreiatuta, Euskal Herriko bazter guztietan aurkitu ditzakegu halakoak, mendietan bereziki. Batzuk aipatzearren: Sorginaren txabola eta Sorginetxe trikuharria, Araban; Errekatxuetako trikuharria eta Kurtzeganeke zutarria, Gorbeia inguruan; Okabeko cromlech multzo ederra, Nafarroa Beherean, eta Mendiluzekoa, Entzian (Araba). Duela gutxi Oiz inguruan aurkitu da Bizkaiko lehen cromlecha.



Sorbituagako menhirra (Urdaibai)



Erekatxuetako trikuharria (Gorbeia)




Katillotxuko trikuharria (Urdaibai)



Txorierrri inguruan ere badugu zer ikusi: Hirumugarrietako trikuharriak, Artxandan; Munarrikolandako tumulu-trikuharriak, Unben... Nahiz eta denboraren poderioz nahiko degradatu diren, menditik ibiltzean, patxadaz, haien ondotik pasatzen bagara, une batean gelditu gaitzek eta hausnartu dezakegu gure arbasoek duela milaka urte eraiki zituztela, ez gutxi kostata, euren hilak omentzeko.

Ibilbide proposamena



Kostaldera joango gara, paraje ezin ederrago batera: Urdaibaira; Busturiko Altamira auzora. Eliza ondoan dauden GR-38 ibilbidearen markak aurkitu eta jarraituko diegu. Ibilbidea oso ondo markatuta dago. "Ogia eta arraina" ibilbideko azken etapakoak dira, Gernikatik Bermeora doana. Etapa osoa (20 km) egin daiteke, baina gure proposamena da laburragoa egitea (13 km inguru).

Markei jarraituta, Alarbin ola zaharren ostean eskuinetara egingo dugu. Mendira sartuko gara. Kilometro pare batera ikusiko dugu basakorta baten erdiko harria, eta apur bat desbideratzen bagara, Sorbituagako menhir ederrarekin egingo dugu topo. Duela gutxi aztertu eta berritu dute, sute batek apurtu egin zuen eta. Markei berriro jarraituko diegu eta errepidea aurkituko dugu, landetxe

batzuk, eskola zahar bat, baserri batzuk, eta basoa berriro. Une batean GRa bitan banatuko da, eta guk, ezkerretara, Katilobuko tontorrera, doan bidea aukeratu dugu. Leku ederra da, Urdaibako bista ezin ederragoekin. Gure arbasoek gauza bera pentsatu zuten, zeren bertan, cromlechetan, senideak eta hilobiratzen zituzten, ondoan jarritako paneletan ederto adierazten den bezala.

Markei Bermeoraino jarraitzen dute (6 km eskas), baina guk eskuinetara egingo dugu, aldapa-behera zuzen eta bortitzetik, Sukarrietara heldu arte. Altamirara itzultzeko dauden hiruzpalau kilometroak trenez edo oinez egin ditzakegu. Oinez egitea erabakiz gero, GR-123ko markei jarraituko diegu, edo zuzenago doan bideren bat hartuko dugu. Azken zatian Madariaga Dorrea eta ekoetxea ikusteko aukera izango dugu.



Urgarata II cromlecha (Goizueta-Nafarroa)



a: Idoia Andres eta Euskaraldia Txorierrri

Euskaraldiaren aurtengo leloak adierazten duen moduan, hitzez ekiteko garaia da. Zehatz-mehatz, 415 txorierritarrek aukeratu dute *belarriprest* rola, eta 1.276 txorierritarrek, *ahobizi* rola. Ariketak abenduaren 2ra arte iraungo du. "Txorierriko euskaldunak aktibatu ditu Euskaraldiak. Aktibatu ez ezik batu ere batu ditu, 15 egunean txapa ipinita ibiliko direnez, euskal hiztunek identifikatuko dutelako euskaraz nork egiten duen eta euskara nork ulertzen duen. Beraz, hizkuntza-ohituren aldaketa halabeharrez gertatuko da. Nolanahi ere, Euskaraldia bukatuta ikusi beharko da aldaketa hori egonkortzen den edo lehengora bueltatzen den", azaldu du Aitziber Argiarro Euskaraldiaren Txorierriko dinamizatzaileak.

Azaldu duenez, eskualdeko herri guztietan lortu da batzordea sortzea eta ariketan izena eman dutenen kopurua ere poztekoa da. "Ariguneei dagokienez, entitateen parte-hartzea ere oso positiboa da, eta aurreko edizioaren aldean parte-hartze hori bikoiztu egin da herriren batean". Euskaraldiari hasiera emateko, aurkezpen-ekitaldiak egin ziren hainbat herritan eta institutuan. "Ariketa bera izango da erdigunea. Hau da, ez da ekitaldi berezirik antolatuko, baina Euskaraldiak lekua izango du herrietan egiten diren ekintzetan, horietan, modu batean edo bestean, Euskaraldiari lotutako keinuak egingo direlako. Hortaz, ariketa berak hartuko du garrantzia, eta herri-batzorde bakoitzak hartuko du Euskaraldia bere herrian lantzeko ardura. Bestalde, itxiera-ekitaldia abenduaren 2an egingo da Lezaman eta asmoa da egun horretarako batzea parte-hartzaileen testigantzak eta plazaratzea 15 egun hauetan zein lorpen egon diren".

Euskaraldiaren aurtengo helburuetako bat da gazteen parte-hartzea handitzea

Hitzaren garaia

Azaroaren 18an Euskaraldia hasi zen, eta Txorierrin 1.691 lagunek eman dute hizkuntza-ohiturak aldatzea helburua duen ariketa sozialean parte hartzeko izena. Gainera, ez da gure bailaran euskararekin izango dugun hitzordu bakarra, Euskararen Eguna dela-eta Txorierriko Mankomunitateak eta Zorritzetan Lezamako euskara elkarteak ekintza-sorta zabala antolatu dutelako.

UDALERRIA	AHOBIZI	BELARRIPREST	GUZTIRA
Larrabetzu	388	123	511
Lezama	207	62	269
Derio	226	81	307
Loiu	50	120	170
Sondika	55	166	221
Zamudio	148	58	206

eta ikus dezatela garrantzitsua dela haiek ere ariketan parte hartzea. Eta helburu hori betetzeko hain zuzen ere sortu da Gazteen Euskaraldia institutuan. "Institutuko batzordeko kideek bideoa grabatu zuten zenbait entitatetan eta hura aurkeztu zuten Euskaraldiaren Txorierriko aurkezpenean. Era berean, aurkezpenean egin zuten institutuan, eta ikasleen artean txapak banatu. Asmoa da ikasleek jakitea Euskaraldia dagoela eta ikaskide batzuk horrekin ibiliko direla, eta elkarren arteko errespetua eta elkarri

ulertzea sustatu. Horrezaz gainera, nahiko genuke batzordea egonkortu eta institutuan betiko geratu dadin, gazteak kontzientziatzen jarraitzeko".

Beste helburu bat da kalitateko ariketa izan dadila. "Arreta zenbakietan ipini beharrean, nahi dugu parte-hartzaileek kalitateko ariketa egitea eta euren rola egoera guztietan bete ahal izatea. Horretarako, aholkuak zabaldu dira gizarte-sareetan eta herrietan ipinitako mahaietan. Nolanahi ere, zalantzarik izanez gero, onena da herri-batzordeetara jotzea".

415 txorierritarrek
aukeratu dute
'belarriprest' rola, eta
1.276 txorierritarrek,
'ahobizi' rola

Herrietan egiten
diren ekintzetan
egingo dira
Euskaraldiari
lotutako keinuak

Aurtengo helburuak
dira gazteen
parte-hartzea
handitzea eta
kalitateko ariketa izatea

Euskara Eguna

Ahobizi edo belarriprest txapa soinean dugula, Euskararen Egunaren harira antolatutako ekintzak etorriko zaizkigu. Lezaman egingo dira aurten, azaroaren 29tik abenduaren 3ra arte. Asmoa da pandemiaren aurreko agertokira itzultzea eta, lehen moduan, aurten lau urtetik 11 urtera bitarteko umeentzako ekitaldiak egongo dira astean zehar. Ekitaldietan guztira 1.171 ume batuko dira, hiru egunetan banatuta. "Parte hartzeko ekintzak izan daitezen saiatu gara", azaldu du Laura Martinez Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko euskara-tek-nikariak. "Adibidez, abenduaren 1ean euskal karaokea egingo da bosgarren eta seigarren mailetako ikasleekin. Horretarako, 108 euskal kanta bidali ditugu eskoletara, ikasgela bakoitzak bi kanta aukeratu ditzan, eta Lezaman abestu". Bestalde, azaroaren 29an Nai malabaristaren ikuskizuna izango da zazpi urtetik bederatzi urtera bitarteko umeentzat, eta abenduaren 2an Motx pailazoak lau urtetik sei urtera bitarteko umeei gozaraziko die.

"Lezamako eskolako umeek saio bakoitzaren aurkezpena egingo dute, eta horiek aurretik lantzen dabilta. Era berean, seigarren mailakoek bertsoa sortu dute eta ikastetxe guztietara bidali da, aurkezpenetan elkarrekin abestu dezaten. *Euskaraz bizi nahi dut* abestiaren koreografia eta batukada ere prestatu dituzte aurkezpenetara begira. Lan itzela egiten dabilta". Euskaraldiaren eta Eus-

La Basu; behean, Barrexerka; eta eskuinaldean, Neomak taldea



kararen Egunaren ekintzek bat egingo dute, eta eskoletara Euskaraldiaren kanta eta bi koreografia bidali dituzte, ikasleek landu ditzaten. Koreografiatako bat Euskal Herri osorako egin da eta bestea Txorierriko dantza taldeek sortutakoa da. "Gainera, abenduaren 2an, Euskaraldiko bukaera-ekitaldian, Lezamako eskolako 104 ume hartuko dute parte, eta koreografia dantzatu". Eskoletako umeek ez ezik institutuko gazteek ere izango dute zer gozatu Euskararen Eguna dela eta. Horrela, azaroaren 29an elkarriketa musikatua egingo dira Derioko Gurea Aretoan. Oraingo honetan, La Basu eta La Pulga abeslariak gonbidatu dituzte agertokira, gazteekin esperientziak partekatzeko.

Euskararen Eguneko ekintzak, Txorierriko Mankomunitateak antolatu ditu "Zorritzketan" euskara elkartarekin lankidetzan. Aurreko lerroetan aipatu moduan, abenduaren 2an amaituko da Euskaraldia eta egun horretako ekintzak ere Lezaman egingo dira. "Herrietako jai-batzordeetako kideek ekitaldia egingo dute eta han ariketan ibili diren zenbait lagun testigantzak jasoko dira, Euskaraldiak aurten zer ekarri dien jakiteko eta ondorioak ateratzeko". Ostean, Neomak taldearen kontzertua izango da. "Kepa Junkerarekin ibilitako Sorginak taldeko partaideak dira. Neomak taldea osatu dute eta egundoko arrakasta dute. Trikitia eta soinu modernoak uztartzen dituzte, eta oso taularatze berritzailea



*Euskararen Eguneko
ekintzak parte
hartzekoak izan
daitezen ahalegindu
dira antolatzaileak*

*Ahalegin berezia
egin da ume eta
gazteentzako
euskarazko ekintza
erakargarriak antolatzen*



dute. Espero dezagun jendea animatzea eta etortzea”.

Euskal jaia

Euskara teknikariaren esanetan, abenduaren 3a ekintza erakargarri bezala etorriko da goiz-goizetik. “Goizeko ekintzak Zorritzaketan antolatu ditu. Diana egongo

da Ondalan Erraldioien Konpartsak giro-tuta, eta ondoren euskal jaia. Ekintza horiek herriko plazan egingo dira, baina eguraldi txarra izanez gero, frontoian egingo dira, gainerako saioak bezala”. Arratsaldean, euskal dj-ak kantak ipiniko ditu umeak eta familiak dantzatzeko, eta ondoren Barrexerka gazteentzako

umorezko ikuskizuna egongo da. Eguna biribiltzeko, erromeria egiteko aukera izango da Zirkunik Bez taldearen eskutik. “Euskararen kale-erabileraren datuak eta Soziolinguistika Klusterrak esan ziguna kontuan hartuta, umeek eta gazteek erabiltzen dute gehien euskara. Hortaz, haientzako guneak sortzen ahalegindu behar dugu, gure etorkizuna dira eta. Horregatik, gainerako adin-tarteetako lagunak ahaztu barik, aurtan ahalegin berezia egin dugu ume eta gazteentzako euskarazko ekintza erakargarriak antolatzeko”.

Lezamara hurbiltzeko gonbidapena egin diete antolatzaileek txorieritarrei, “ahalik eta ondoen pasatu eta euskaraz egin dezaten”. Halaber, keinua egin diote Euskaraldiari. “Ea ahalik eta jende gehienak txapa ipintzen duen eta euskara erabiltzera animatzen den. Gainera, egundoko lorpena izango litzateke, pertsona bakoitzak hizkuntza-ohiturak aldatu eta lehen gaztelaniaz egiten zuen lagun birekin gutxienez, hemendik aurrera euskaraz egitea lortuko balu”. Hitzaren garaia da, beraz.

Txorierrin gure artean euskeraz berbaz

txori tokiak

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

MINTZAPRAKTIKA
Ikastaroa arratsaldean, astean bi egunetan

C1/B2/B1
Ikastaroak, goizez eta arratsaldean

Autoikaskuntza

Matrikula zatitan ordaintzeko aukera
Dirulaguntzak: % 50-% 75

Erdi geugaz!

EUSKARA GUZTIONTZAK

Hiretzat
Niretzat
Harentzat

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia@txorierri.eus

Euskararen erabilera atzeraka dabil L

t: Itxaso Marina


Udalerri euskaldunen egoera soziolinguistikoaren bilakaera aztertu du UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea), eta horretarako, EUSTATEk urrian kaleratutako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda hartu du iturritzat. UEMAK hiru aldagai linguistiko hauek izan ditu kontuan: euskararen ezagutza, lehen hezkuntza eta etxeko erabilera. Ondorio nagusia da udalerri euskaldunetan euskararen erabilera atzeraka dabilela. Txostenean Larrabetzuko eta Lezamako datuak ere batu dituzte.

UEMAK aztertutako datuak dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerri euskaldunetakoak. Txostenean jaso dutenez, udalerri euskaldunen kopurua areagotzen ari da, ezagutzak gora egin duen udalerriak ari direlako % 70eko langa gainditzen. Hala ere, laugarren gune soziolinguistikoa, hau da, euskaldunak % 80tik gora diren udalerriak, ez da hazi. Larrabetzuko datuei erreparatuta, 1981n biztanleen % 71k euskara zekiten, eta 2021ean, % 73,8k; hala ere, aipatu beharra dago ehunekorik altuena 2001ean izan zela: % 78,3. Lezamako datuei dagokienez, 1981ean herritarren % 72,4k euskara zekiten, eta 2021ean, % 64k; ehunekorik altuena 1991ean izan zen: % 75.


Beste aldetik, UEMAREN azterketaren arabera, euskara lehen hizkuntza duten ehunekoak nabarmen egin du behe-azken hamarkadetan, eta bide hori ez da oraindik eten. "Erkidegoko datu orokorretan ere gertatu da jaitsiera hori, baina ere nabarmenagoa da udalerri euskaldunetan. Euskaldunen profilean eragin nabarmena dauka: udalerri euskaldunetan ere gero eta euskaldun gehiago dira euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutenak, edo etxean bi hizkuntzak jaso dituztenak". UEMAREN esanetan, biztanle mugimenduak daude horren oinarrian,

*Gero eta euskaldun
gehiago dira euskara
bigarren hizkuntza
gisa jaso dutenak*


Larrabetzu: ezagutza



Larrabetzu: lehen hizkuntza



Larrabetzu: etxeko erabilera



arrabetzun eta Lezaman


Euskaldunen transmisioa sendoa izan arren, jende-aldaketek lehen hizkuntzan eragiten dute

eta ez transmisioaren haustura bat. "Euskaldunen transmisioa oso sendoa da udalerri euskaldunetan, inon baino sendoago, baina jende-aldaketek lehen hizkuntzan eragiten dute". Euskara larrabetzuarren % 74,9ren lehen hizkuntza zen 1991ean, eta % 45,3rena, 2021ean; lezamarren % 70ena, 1991ean, eta % 37,5ena, 2021ean.


Euskararen etxeko erabilerak ere nabarmen egin du behera. "Ezagutza txikiagoak erabilera txikiagoa dakar, baina, proportzioan, erabileraren jaitsiera askoz ere handiagoa da". Horrela, bada, 1991ean % 72ko ezagutza zegoen, eta erabilera % 54koa zen; 2021eko datuen arabera, berriz, ezagutza % 73koa da, baina erabilera % 41ekoa. Aldea nabariagoa da laugarren gune soziolinguistikoan: ezagutza % 90ekoa eta erabilera % 81ekoa ziren 1991ean, eta % 84koa eta % 59koa 2021ean. "Kontuan hartu behar da udalerri euskaldunetako herritarren profila nola aldatu den, eta bereziki euskaraz dakitenen profila. Udalerri euskaldunetan euskaraz ez dakien gero eta jende gehiago dago eta horrek eragin handia du erabileran eta erabilera-aukeretan". Horrezaz gainera, azpimarratu dute udalerri euskaldunetan bizi diren euskaldunek bestelako hizkuntza ezaugarriak dituztela –lehen hizkuntza, erraztasun erlatiboa, hizkuntza ohiturak...– eta horrek dakarrela ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea handitzea. "Horri gehitu behar zaio udalerri euskaldunetako bizimoldean eta bertako herritarren gizarte-ohituretan nolako aldaketak gertatzen ari diren eta horiek guztiek euskararen erabilerari nola eragiten dioten".

Euskararen etxeko erabileraren datuei dagokienez, larrabetzuarren % 57,3k etxean euskaraz egiten zuten 1991ean, eta % 37k, 2021ean. Lezaman, bestalde, herritarren % 37,2k erabiltzen zuten euskara etxean 1991ean, eta % 21,8k, 2021ean. Txostena UEMaren webgunean dago irakurgai.


Lezama: ezagutza



Lezama: lehen hizkuntza



Lezama: etxeko erabilera



Lau emakume, arto-sail bera

TOTI MARTINEZ DE LEZEA | idazlea

Toti Martinez de Lezea Larrabetzuko idazleak *El maizal* eleberria argitaratu du. Bere azken lan horretan jaso du familia bereko lau emakumeren historia, eta 1852tik 1975era arteko testuinguruan kokatu. Orrialdeetara eramane du bizi diren gizarteari aurre nola egiten dioten.

t/a: Itxaso Marina


"Bakoitzak garai politiko eta sozial ezberdin bat bizi arren, komuneko egoera bat dute: lan egin, ikasi edo bidaiatu ahal izateko, aitarene edo senarraren baimena behar dute. Orduan, eleberrian haietako bakoitzaren borroka islatu dut, aurrera jarraitzeko eta nahi dutena egiteko. Bestalde, kontuan hartu behar da asaldura handiko garaia dela, izan zirelako Lehenengo Mundu Gerra, 1918ko pandemia, Errepublikak, Bigarren Mundu Gerra eta diktadura", kontatu digu egileak.

Emakumeak dira istorioaren protagonistak, "populazioaren erdia garelako eta guri buruz hitz egin behar delako. Gainera, eleberriko emakumeek bazuten zer kontatu". Izan ere, egokitu zaien garaian bizi izaten ahalegintzen diren emakumeak dira. "Birramamarekin gogoratu nintzen egun batean, eta hura zein ama ezagutu nituela hausnartu nuen, eta ama... Hori izan zen abiapuntua, baina eleberriararen protagonistak ez dira nire familiako emakumeak, ez, inondik inora; edozein herritako emakumeak izan daitezke, zeinak familiara, etxera, base-

rrira, senarra eta seme-alabengana... mugatuta baitaude eta etxetik kanpo lan egiteko edo euren bizitza egiteko aukerarik ez duten". Gainera, oso arau sozial eta moral zorrotzak jasan behar dituzte. "Esaterako, ezkondu ostean, senarren baimena beharrezkoa zen lanean jarraitu ahal izateko... Eta senarrak etxetik alde egiten bazuen edo adulteriogilea bazen, ez zen ezer gertatzen; hala ere, etxetik emakumeak alde egiten bazuen edo adulteriogilea emakumea bazen... Borroka isila izan da, lerro-buru handietara ailegatu ez dena, gaur egun gauden lekuan egon ahal izateko. Orain lan egin eta nahi duguna egin dezakegu; bueno, bakarrik neurri bateraino..."

Martinez de Lezeak guztira 27 eleberririk idatzi ditu eta 23tako istorioa Euskal Herrian gertatzen da; gainerakoak Euskal Herritik kanpo kokatu ditu, baina protagonistak euskaldunak dira. Oraingo honetan, edozein herritako biztanleak izan daitezkeen emakume horiek Huescan bizi dira. "Komenigarria da noizean behin kanpora atera eta paseoa egitea (kar-kar). Istorioa edozein herritan kokatu ahaliko nukeen, adibidez, Andaluzian, baina gutxi dakit Andaluziari buruz, bere herritarrei buruz, euren pentsatzeko erraz buruz... Dakidanaz idazten dut eta Huesca gure izter-lehengusina da: izen historikoa Oskak da; Iruñeko Erresumako parte zen, harik eta Sancho III.ak Huescako iparraldeak semea, Ramirori, eman zion arte; Aragoiko Erresumaren hasiera da... Era berean, Huescan toponimoa eta izen-abizen euskaldunak ere badaude, hala nola Aierbe, Learre eta Izarbe, eta Pirinioetan Basajarauren eta Mari Buena-

"Protagonistak edozein herritako emakumeak izan daitezke, etxera, senarra eta seme-alabengana mugatuta daudenak"




Larrabetzuko idazleak *Nur* gazte-txoentzako bildumaren 17. alea ere kaleratu du: *Nur eta espazio-ontzia*. Protagonista eta lagunak Mexikora, Chiapasera, bidaiatu dute oraingo honetan. "Lagun batek harreman estua du hangoekin eta eleberririk bat han kokatzeko proposamena egin zidan. Hango errealitatea oso ondo ezagutzen ez dudanez, erantzun nion ez nuela eleberririk idatziko, baina ipuina idaztera animatuko nintzela. Gainerako istorioekin alderatuta, erabat ezberdina da; nolana ere, idaztearen helburuetako bat da hain zuzen umeei erakustea munduan beste leku batzuk daudela".

Istorioa Palenque hirian gertatzen da. "Maien antzinako herria da Palenque eta Pakal erregearen hilobian irudi bitxi bat dago. Horretan erregea «beste mundura» egiten dabilen bidaia irudikatzen da, eta batzuen ustez, badirudi hegazkinaren antza



Nurrek eta lagunek Chiapasen dute abentura



duen ontzia gidatzen ari dela; hortaz, beste mundu batetik etorritako izakia dela pentsatzen dutenak badaude. Egia esan, kultura guztietan izan da uste hau: Lurrean bizi ziren lehenengo izaki bizidunak beste mundu batzuetatik etorritako erraldoiak ziren eta gizakiei irakatsi zieten lurra lantzen, irina nola egin, metala nola urtu tresnak egiteko... Izan ere, ez zuten ulertzen gizakiek gauza horiek euren kabuz egitea nola lortu zuten. Orduan, oso dibertigarria iruditu zitzaidan ipuinera ekartzeko". Nurren hurrengo abentura buruan du dagoeneko. "Irakurle asko ditu Nurrek, eta abentura gehiago nahi dituzte".


*"Istorioa prosa hutsean,
idazteko erronka
bota nion
neure buruari, eta
erabateko esperientzia
izan da"*

ren istorioak kontatzen dira. Gainera, Nafarroaren mugakideak izan ziren herrietan euskaraz egitea debekatu zen XIX. mendean".

Erronka

Arazoi pertsonalagoak ere izan ditu, Huesca agertoki aukeratzeko. "Asko gus-tatzen zaidan ingurua da, eta, beste aldetik, senarraren bigarren abizena Buisán da, hango herrixka txikia dena. Era berean, herenaitite Huescako zen. Conrado García zuen izena, eta Iruñako katedralaren organo-jotzailea izateaz gainera, Iruñako Orfeoia sortu zuen, eta Julian Gayarre deskubritu". Azken eleberria erronka ere izan da larrabetzuarrarentzat. "Istorioa elkarriketarik gabe, prosa hutsean, idazteko erronka bota nion neure buruari, eta meritu handia du horrek, zeren eta kontatzen baitut beste batek kontatu didana hirugarren bati gertatu zaionari buruz. Horrek ondo idatzita egon behar du, eta errepikakorra ez izan. Erabateko esperientzia izan da".

El maizal urte sabatiko baten ostean idatzi du Martínez de Lezeak. "Pandemia zela-eta dena itxi zenean, eta, idatzi beharrean, erabaki nuen denbora irakurtzen ematea, operak, antzezlanak... ikusten; hala ere, egia da *Nur* bildumaren 16. alea kaleratu nuela: *Nur eta zirku miragarria*". Zenbait kolaborazio ere egin ditu urte sabatiko horretan, esaterako, *Sorginak eta sorginkeriak* ikuskizuna Gorka Hermosarekin eta Edurne Zabalarekin. "Emilio Arias trobadorearekin batera ere saioa egin dut Done Jakue Bideari buruz, eta urtarrean *Bretxa* eleberrian oinarritutako musikala aurkeztuko da Donostian. Poz-pozik nago". *Bretxa* musikala Bergarako Antzerki Musikala elkarteak eramango du Victoria Eugenia antzokira urtarilaren 13an, 14an eta 15ean, eta dagoeneko ia sarrera guztiak saldu dira.



t: J. L. Barrenetxea. Iturriak: Udalak, Udalnet

Administrazio publikoko aurrekontuak, udaletakoak ere bai, bederatzi kapituluatan banatzen dira. Ondorengo grafikoetan sarrera arruntetakoak diren bost kapituluak hartu dira aztergai. Orokorrean, hiru udalerrri-mota bereiz daitezke Txorierriin: Derio eta Zamudio, sarrera absolutu altuenak dituztenak; Loiu eta Sondika, Kopuru ertaineko sarrerak dituztenak; eta Larrabetzu eta Lezama, gainerakoekin alderatuta maila baxuagoko sarrerak dituztenak. Grafiko bakoitzeko izenburuan, 2022ko aurrekontuan aurreikusitako sarrera osoen zifra adierazten da –kapital eta finantzazkoak barne–, eta zutabeetan, bost sarrera arruntetarako.


Jakina denez, zergak dira Sistema publikoaren sostengua. Udalkutxa bera –transferentzia arruntren % 93 dena– Fo-

Txorierriko Udalak 2022ko sarrera-aurrekontuetan


ru Aldundiak kudeatu eta banatzen du, eta lurraldeko zerga-bilketan du bere iturri ekonomikoa. Bizkaiko ia udalerrri guztietan Udalkutxa da diru-iturri nagusia. Txorierriri dagokionez (kasua ez errepikatzeko) aipatzekoa da Loiu eta Zamudioren kasua: udalerrri horiek zergen bidez Udalkutxaren bidez baino diru gehiago biltzen dute. Udalkutxaren diru-partida banatzen da udalerrrien artean, eta faktore hauek hartzen dira kontuan: 81.137 kuota finko bat udal bakoitzarentzat gehi beste aldagai hauek: udalerrietako populazioa, bere ahalegin fiskala, eskola

unitateak, langabezia, dispersioa eta hondartzak eta halako faktore bakoitzari portzentaje ezberdin bat aplikatuta. Ondarearen kapituluak osatzen dute aprobe-txamenduetatik, alokairuetatik eta kontu ezberdinetako interesetatik sortzen diren sarrerak.

Sarrera arruntekin jarraituz, hasierako barra-grafikoetan zifra absolutuak agertzen dira, eta ondorengo grafiko zirkularretan ehunekoetan azaltzen dira. Alde batetik, udal bakoitzak sarrera propioetan –zerga eta tasen diru bilketan– duen ahalmen ekonomikoa agerian utzi nahi da, eta bestetik, Udalkutxako sarrerak



2022. Biztanleko Sarrerak €tan



udal batzuetan betetzen duen ehuneko gehiengo esanguratsua agertu. Obra-lizentziek iraganeko pisua izan ez arren, garrantzikoak izaten jarraitzen dute hiru herritan, eta ondareari lotutako sarrerak, Lezama salbu, pisu gutxi dute.

Hirugarren grafikoan, zergak, tasak eta Udalkutxa aurkezten dira biztanleko. Zifra absolutuetan dauden ezberdintasunak gehiago parekatzen dira biztanleko zifratan. Kalkulu hau egiteko, 2021eko urtarilaren 1ean izan den populazioa hartu da Eustatetik. Txorierri biztanleri ertain-baxuko eskualdea da eta jarduera ekonomikoa pisuzkoa du,

horregatik zerga eta tasa bilketan sarre-
ra-kopuru altuak ematen ditu beste es-
kualde ekonomiko batzuekin alderatuta.
Nolanahi ere, kontuan hartu behar da,
neurri handi batean, zergen eta tasen
bitartez eskuratzen den diru-sarrera in-
dustria guneetatik etortzen dela, eta biz-
tanleek ez dutela karga fiskal hori zuzen-
ean jasaten.

Sarrera arruntez gainera, bi atal ge-
hiago daude aurrekontuetan: 6 eta 7 ka-
pituluetako kapital-sarrerak, eta 8 eta
9 kapituluetako finantza-sarrerak. Sei-
garren kapituluan udal lurak, eraikinak
edo tresneriak salduz biltzen diren di-

ru-sarrerak daude, eta zazpigarren ka-
pituluan, Aldunditik eta Jauralaritzatik
jasotzen diren dirulaguntzak, batez ere
azpiegitura-inbertsioak ehuneko-kopu-
ru batean finantzatzeko. Finantza-sa-
rreratan bederatzigarren kapitulua da
esanguratsuen, bertan finantza-enti-
tateekin sinatzen diren maileguak dau-
delako. Maileguak sarrera bat dira, baina
pasibokoa; hau da, zorra sortzen dute.
Mailegu-zorra 2021eko abenduaren 31n
zero izan zen Txorierriko lau herritan, eta
beste bitan, Larrabetzun eta Lezaman,
112.338 eurokoa eta 144.828 eurokoa hu-
rrenez hurren.

2022an, erlatiboki, kapital- eta fi-
nantza-sarrerak kopuru txikikoak dira
Txorierriko herri guztietan, Larrabetzun
izan ezik: Derio, 49.000 euroko sarrerak;
Larrabetzuk, 726.000 euro; Lezamak, 0
euro; Loiu, 10.818 euro; Sondikak, 12
euro; eta Zamudiok, 25.010 euro. Larra-
betzuko kasuan, udaletxea berritzeko fi-
nantza entitate batekin formalizatzeko
aurreikusita zuen 600.000 euroko maile-
gua ez da 2022an sinatuko.

2015ean, Txorierriko udalerriek oro
har 30.924.000 euroko sarrerak izan zituz-
ten udal-aurrekontuetan. Kopuru hori
37.024.000 eurokoa izan zen 2019an, eta
2022rako 36.355.000 eurokoa izatea au-
rreikusita dago. Krisialdia eta pandemia
tartean izanda ere, eutsi egin zaio udalen
jarduera ekonomikoari, eta etorkizunak
hobera egingo duen esperantzari ere eu-
tsi behar.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Pozgarri

Inter Movistar talde madrildarra munduko areto-futbol klubik onenetakoa da. Estatuan, besteak beste, 23 Liga eta 16 Kopa irabazi ditu; eta nazioartean, sei aldiz lortu du Europako Kopa, eta bost, Mundukoa. Orain, babesleak hala esanda, urdinez janzten dute, baina normalean kamiseta berdea izaten da. Eta horregatik, makina berdea esaten zaio. Derion ere badugu areto-futbol taldea, Pozgarri, eta bere janzkera ere berdea da. Ez du Interrek beste liga irabazi, baina aurtan 25 urte bete ditu. Eta ez da marka makala, ez horixe!

"Ez da erraza hainbeste urtetan aurrrera egitea, ez. Lan handia egin behar da eta leku batetik eta bestera ibili", esan digu Unai Ezkurra klubaren presidentek. Pozgarri taldea egitura sendoa da; guztira, bost taldek gehi eskolak osatzen dute kluba: lau gizonezkoak eta beste bat, emakumezkoa. Gizonezkoen talde bat gazte mailakoa da eta beste hirurak, senior kategoriakoak: A taldea Euskal Ligan dabil; B taldea, Lurraldeko Lehenengo Mailan;

Urteurrena

Pozgarrik 25 urte bete ditu aurtan eta, hori ospatzeko, ekitaldiak antolatu dituzte lau epetan. "Lehenengoan, ekainean, kategoria guztietako taldeek (gizonezko talde seniorrak izan ezik) txapelketa batean hartu zuten parte. Bizkaiko hainbat talde etorri ziren, baita Castro talde ospetsua ere. Oso polita izan zen. Bigarrenengan, irailean, beste txapelketa bat antolatu genuen senior kategorian. Han, Hegalariak eta Gipuzkoako Goierri taldea aritu ziren. Giputzak Hirugarren mailan daude. Partidak jokatu eta gero, herri paella antolatu genuen eta udalak oparitxoa eman zigun. Oso gustura egon ginen. Azkenik, abenduan, lagunarteko partidak egin nahi ditugu kategoria guztietan. Campus bat egitea ere gustatuko litzaiguke. Eta dena biribiltzeko, ekainean beste gauza bat antolatu nahi dugu, baina oraindik ezin dut ezer esan horren inguruan", esan du Unai Ezkurra presidentek.

Derioko makina berdea

POZGARRI ARETO-FUTBOL KLUBAK 25 URTE BETE DITU

Duela 25 urte, Derioko lagun talde batek kirola egiten jarraitu nahi zuen eta, horretarako, areto-futbol talde bat sortu zuen. Herriko taberna bat hartu zuten babesleztat eta handik, baita izena ere. Gaur egun, Pozgarri taldeak klub egonkorra da eta egitura sendoa du.



eta C taldea, Lurraldeko Lehenengo Mailan. Guztira, 60-70 jokalaria eta beste 20 lagun inguru daude klubean: 14 teknikari, bost batzarkide eta beste laguntzaile bi. "Lagun-talde polita eta konprometitua osatu dugu".

"Kluba indartzeko, egitura sendoa izan behar du eta, horretarako, taldeak kategoria guztietan izan behar ditu, emakumezkoak barne". Pozgarri 2006an sortu zuen emakumezkoen taldea, baina urte bi beranduago desagertu zen. Eta 2018an taldea berriro sortzeko aukera izan zuen. "Bilbo taldea Estatuko Lehenengo Mailara igo zen eta gu filialtzat hartu gintuen. Urte polita izan zen eta gaur egun Bilbok ez du gurekin jarraitzen, baina neskek bai, ordea. Talde gaztea da eta etorkizun oparoa du".

Unairen esanetan, klubak herriko babesa sentitzen du. "Batetik, udalak laguntza ematen digu: kiroldegia uzten digu, eta gure beharra handiago egin ahal, ordu gehiago eskaini digu; bestetik, merkatariek babes ekonomikoa ematen digute. Egitura sortzea erraza da, baina gero hori elikatu behar da eta horretarako

"Partaide gehienok derioztarrak gara. Horrek harrotu egiten gaitu eta nortasuna ematen dio taldeari"

dirua behar da: fitxak ordaindu behar dira, epaileak, jantziak, Federazioaren zigorrak...". Hori bat dator klubaren filosofiarekin. "Gu derioztarrak gara eta herrikoak dira gure partaide gehienak. Horrek harrotu egiten gaitu. Hirugarren zatia garrantzitsua da eta partidaren ostean, poteoa egiten dugu herritik. Horrek nortasuna ematen dio taldeari".

Eskola

Pozgarri bide horri jarraitu nahidio eta horretarako areto-futbol eskola indartu. Pandemiak kalte handia ekarri zien, eskola urte horretan bertan, 2020an, martxan

jarri zutelako, baina apurka-apurka neska-mutilak dabilta berreskuratzen. "Umeek primeran pasatzen dute gurekin. Inguruko eskoletara gutunak bidali dizkiegu, areto-futbolaren abantailen berri emateko: barruko kirola denez, jokalaria ez dira hotz eta ez dira inoiz bustitzen; halaber, jokalaria guztiek hartzen dute parte. Eta hori ez da futboleko gertatzen, esate baterako, kirol federatua, gutxienez. Gure kirolak marketinik eza du. Pozgarri taldea ezaguna da herrian, baina gurasoek ez dakite noraino heltzen den gure egitura. Kategoria altuenean jokatzen duen klub derioztarra gara, esate baterako, Derio futbol taldearena baino altuagoa da gurea".

Ezkurak ia 20 urte daramatza taldean eta lekukoa atzetik datozenetako baten bati eman nahiko lioke. "Nekatuta nago eta jende berria sartzea onuragarria izango litzateke: ilusio berriak, ideia berriak...". Dena dela, baikortasunez begiratu dio etorkizunari. "Klubak hazten jarraitzea nahiko nuke. Eta egiturari eustea ez ezik handiagoa izatea ere gustatuko litzaidake".

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

t: Jorge Uruñuela, zerbitzuko erabiltzailea

Gizarte-taldeak (feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren kontrako elkar-teak...), politika- eta kultura-eragileak eta akademikoak batzea da Gizarte-mugimenduen herri-unibertsitatearen (UPMS) proposamena, bizpahiru egunetan elkarrekin bizi daitezen. Sukaldaritza-erreze-ta balitz moduan, gisatu gozoa egiteko, baldintza bakarra da ordezkatzeko-ehunekoak orekatuak izatea: heren bat, kasu guztietan.

Urrian, Arantzazun elkartu ginen egun bitan, eraldatzeko agenda partekatuak eraikitze eta gure lubakitik atera eta beste gizarte-aldarrikapen batzuekin bat egiteko. Zehatz-mehatz, aztertu genuen gizarte-eragileok unibertsitateari zelan lotu gaitzek, elkarri adorea emateko eta elkarrekin batera gizarte-eraldatzeari ekarpena egiteko.

Bestalde, Boaventura de Sousa Santos soziologo portugaldarrak –UPMSko sortzaileetako bat izan zen 2003. urtean– eskaintzen duen “bozgorailuaz” baliatuta, Donostian eta Bilbon konferentzia publiko bana egin zen, hainbat elkarrizketa interesgarrien bidez gizarteak prestatzen genbiltzan gisatuaren usaina aditu ahal izateko. Era berean, Boaventura elkarrizketatu genuen Ganbara Gizarte Irratian; eta bai, neuri egokitu zitzaidan bera elkarrizketatzea.

Astelehen goiza da eta Joanesek prest du aste honetarako elkarrizketa. Hau bai “marroia”! Izan ere, Miguel Ángel kideak eta biok egin ohi ditugu elkarrizketak, baina hau neuk bakarrik egin beharko dut. Boaventura de Sousa Santos nor den han eta hemen arakatzeko hasi naiz. Berari buruzko informazioa topatzen joan ahala handitu da nire harridura: goren mailakoa da soziologian eta bere lana mundu osoan hartu dute aintzat. Gainera, *honoris causa* doktorea da Costa Ricako Unibertsitatean, eta hainbat lan argitaratu ditu, besteak

Gizarte-mugimenduen herri-unibertsitatea

* Elkarrizketa osoa YouTubean entzun eta ikus daiteke, “Boaventura de Sousa Ganbara Gizarte Irratian” ipinita.



beste, globalizazioari eta giza eskubideei buruz. Nolanahi ere, itxura ona hartu diot hurrengo honengatik: hegazkina ordubate barru hartu behar duen arren, gure irratia txikira etorri nahi izan du Albertok lagunduta (Emaús-Gipuzkoa), UPMS zer den azaltzeko. Portugaleko soziologoak kontatu digu langileen familia xume batean hazi zela eta goi mailako ikasketak egin zituen inguru hurbileko bakarra izan zela. Munduko unibertsitate inportanteenetan egindako ibilbideari buruz ere hitz egin dugu, eta, UPMS unibertsitatearen bultzatzaileetako bat izan

zen heinean, Euskal Herrian egindako azken jardunaldiak nola bizi izan dituen. Era berean, azpimarratu du gizartea eraldatzeko ezinbestekoa dela guztion artean unibertsitate kritikoak, inklusiboak eta partizipatiboak eraikitzen jarraitzea.

Nerbioak dantzari izan ditut goiz osoan: informazioa birpasatzen ibili naiz, galdezka... Elkarrizketak ordu-erdi baino gutxiago iraun du, baina berarekin emandako minutu bakoitza gozatu dut. Bera ere oso eskertuta azaldu da gure irratira gonbidatu izanagatik. Berriro itzuli nahi duela esan digu. Baita neuk ere!

PELUKERIA ESTETIKA LARRABETZU

Anguleri n° 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzuak: Behinik, Logopedia, Podologia, Kiroprasajea

clínica dental ZAINDUZ hortz klinika

Taxoien estazioa, 8 - Lortze | Anaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oinezkoen garbi-ikusiak
Ikastetxeak
Zahar hileria

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

t: @txiribitakosmeo / a: www.cuerpomente.com

Solidago virgaurea. Mentha spp.: piperrita, aquatica, spicata. Oso landare eza-guna da gure inguruan eta baserri askotan landatzen dute. Landetan barietate anitz topatu ditzakegu, hala nola menda zuria, menda beltza eta mendafina. Barietate ia guztiek antzeko propietateak dituzte. Hostoak urte osoan batu daitezke, eta fresko edo siku hartu. Nolanahi ere, hobe da goizean batzea, olio-kantitatea handia delako. Bestalde, itzalpean eta ondo aireztatuta dauden lekuetan sikatu behar dira. Ontziratu ostean, leku fresko batean gorde behar dira.

Sukaldean

Hostoak erabili daitezke edari freskagarriak egiteko eta kokteilei zaporea emateko. Era berean, gozagarria da eta erabili dezakegu saltsak prestatzeko edo entsaladetarako menda-ozpina egiteko (menda-kimu bat litro erdi kalitateko ardo-ozpinetan sartuko dugu, eta 14 egunean beratzen eduki. Iragaziko dugu).

Errezeta: menda-xarabea

Xarabea prestatzeko beharko dugu katilukada bat ezti puru, katilukada bat iragazitako ur eta katilukada bat menda fresko. Menda txiki-txiki egingo dugu. Su motelean ipiniko dugu eltze bat, eta ura, menda eta ezti gehitu. Eragingo dugu, harik eta ezti erabat urtzen den arte. Bizpahiru minutuan irakiten utziko dugu. Ondoren, jalkitzen izango dugu minutu batzuetan eta estalki hermetikodun pote garbi batean gordeko dugu. Xarabea hozkailuan gordeko dugu. Xarabea tea gozatzeko erabili daiteke, entsaladak ontzeko, saltsetarako, koktelak eta irabiatuak egiteko, izozkiak, fruta-mazedoniak... Hau da, bururatzen zaigun guztirako erabili dezakegu. Gainera, ezti duenez, eztula arintzeko ere erabili dezakegu, koilarkada txiki bat hartuta.

Propietate sendagarriak

Menda lagungarria da digestioa hobetzeko eta haizeak botatzeko. Halaber, laguntzen du arnas arazoak eta eztula arintzen. Buruko mina ere arintzen du, goragaleak eta kolikoak. Infusioa egiteko, ur litro bakoitzeko 20-30 g menda erabiliko

Menda

dugu. Egunean bi katilukada menda hartzea gomendatzen da, hobe delako gehiegi ez hartzea. Nahi izanez gero, infusioa beste landare batzuk ere erabilia egin dezakegu, esterako, garraiska, hilerri-lilia, erromeroa, kamamila, anis-bellarra, ezkaia edo izpilikua. Buruko mina arintzeko, beste alde batetik, oihal batean ipini ahal ditugu infusioa egiteko erabilitako hostoak, eta kopetan jarri.

Ortuan

Baratzetan landatutako mendak polinizatzaile-mota guztiak erakarriko ditu, adibidez, erleak eta tximeletak. Gainera, infusio kontzentratua egin dezakegu izurriteei aurre egiteko, kasurako, landare-zorriei aurre egiteko.

Bitxikeriak

Basoko menda ere badago eta askotan asunen inguruan hazten da. Asuna ukituz gero, menda erabili dezakegu mina arintzeko. Horri lotuta, Euskal Herriko herri batzuetan abes-

Hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude. Utzi beti zerbait, eta ez atera landarea sustraitik. Ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira. Ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan. Hartu dezakezu larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan, golidatu gabeko basoetan, toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ batu areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan. Hartu goizean. Erabili eskularruak...

ti hau kantatzen dute: "Menda menda / senda menda / osin gaiztoak / erre nau".

Kontraindikazioak

Ezin dute menda hartu haurdun dauden emakumeek edo seme-alabei titia ematen dabilzanek, bi urtetik beherako umeek eta gastritisarako botikak hartzen dituztenek.



t: Xabier Diaz / a: www.hipertextual.com

Fake news edo albiste faltsuen⁽¹⁾ garai honetan, ohituta gaude trukaturako argazkiak zein bideoak ikustera. Ziur aski, batzuek horrelakoak egiteko aplikazioak ere izango dituzue sakelako telefonoan, eta seguru Photoshop aipatuta horrelakoak burura etorriko zaizkizuela. Eta ez pentsa amarru horiek erabiltzea gaur egungo kontua denik. Trotskyri galdetu bestela, Stalin "lagunak" argazkietatik desagerrarazi zuenean⁽²⁾.... Erailtzeko agindu baino lehen.

Deepfake

Bai, noski. Geuk ez ditugu horrelakoak erabiliko politikan eragiteko edo pertsona publikoen irudia kaltetzeko, baina lehen trebezia berezia eskatzen zuena gure poltsikoetan daukagu orain. Deepfake, kategoria horretan sartzen bada ere, aurreratzea da. Orain arte, bideo zaharren gainean bideo berriak jartzen ziren, eta *Forrest Gump* pelikulan, esaterako, daukagu horrelako edizioen adibide garbia.



Bestalde, *El intermedio* telebista-saioan askotan ikusten den bezala, ez da hain zaila bideoak editatzea politikari baten mezua aldatzeko. Baina manipulazio horiek, egilearen eta ikuslearen trebezia tartean, ez dira antzemateko hain zailak.

Deepfaken kasuan, hainbat irudi, ahots zein bideotatik abiatuta, adimen artifizial batek irudi, ahots zein bideo berriak sortuko ditu⁽³⁾. Nahi dugun baldintzetan, moldatutakoak zein zerotik sortutakoak, eta horregatik dira bereizteko zailagoak. 1995an hildako Lola Flores iragarki berri batean ikusi dugu, Vicomtech Donostiako Zentro Teknologikoak XRey podcasterako⁽⁴⁾ Francoren ahotsa klonatu zuen... Eta hainbat kasutan erabili da albiste faltsuak publikatzeko edo enpresen kontra egiteko, freskagarri-enpresa ezagun bati gertatu zitzaion bezala⁽⁵⁾.

Beste era batzuetako aplikazioak ere badira. Gaixotasunen bat dela-eta ahotsa galtzen duten pertsonen kasuan, ordenagailuak zein mugikorrek erabili daitezke komunikazioa errazteko. Ordenagailuz sintetizatutako ahotsa erabili ohi dute, gogoratzen al duzue Stephen Hawkingen kasua? Teknologia horiei esker, gailuek pertsona horien berezko ahotsa erabili ahal izango dute, komunikazioa erraztuz.

Vicomtechek baditu aholku batzuk iruzurak antzemateko. Itzalak, adibidez, ez dira hain errazak sortzen, eta horietan fikatzea pista bat da. Beste bat da ahoskera eta ezpainen eta ahoaren mugimenduarekin bat etortzea.

Dena den, teknologiak geroz eta hobekiago dira. Bideo-jokoetan erabiltzen diren teknologiekin gertatzen den bezala, gero eta zailagoa da errealak eta birtualak diren bideoak bereiztea, eta gauza bera gertatzen da *deepfake*-ekin.

Betiko moduan, adimen artifizial horien kontra daukagun armarik potenteena gure adimena da.... Eta sen ona, noski.

(1) Albiste faltsu - Wikipedia. <https://labur.eus/aikordeep01>

(2) The Commissar Vanishes - Wikipedia <https://labur.eus/aikordeep02>

(3) Deep Fake bideoak: teknologia, aplikazioak eta mugak, Vicomtech, <https://labur.eus/aikordeep03>

(4) Vicomtech-ek errealismoa gehitzen dio XRey podcastari, Adimen Artifizialean oinarritutako ahotsa klonatzeko teknologiaren bidez, <https://labur.eus/aikordeep04>

(5) La historia de cómo un deepfake consiguió dañar la reputación de una empresa de refrescos en España: así son los nuevos cibercriminales, Genbeta, <https://labur.eus/aikordeep05>


LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

PATXI
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Santitasgongora / Pasaia 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel. 944 527 307 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Euskara gara edo ez gara

-Non amaitzen da gure mundua, amama?
-Euskara amaitzen den lekuan, laztana!



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Uztartia aldizkaria

Euskara ez bagara, ez gara inor zortzi mila milioiko biztanleria duen planetan. Gure herrialdeko berbeta dakiten seme-alabak euskaldun deitzen dira, hau da, euskararen jabe direnak. Orduan, zelan deitu euskaraz Baskonian jaiotakoei, bertoko diren erdaldunei? Euskaldunok ez gatoz bat gai honetan. Artikuluan erdaldunak deituko ditugu. Dena den, ez da izen kontua bakarrik, ze euskaldunok komunitate edo herri bezala existitzen bagara, batez ere, euskararengatik da, hizkuntzaren presentziarengatik. Jaiokeran hartu dugun ondarea da, geuk gura izan barik eta bilatu gabe. Gainera, ez

da nahiko euskarari isilpean uko egitea, ezpada ze, era aktiboan ukatu behar da, eta hori sufrikarioz egiten da, Unamunoren kasuak erakusten duen legez⁽¹⁾.

Español izateko gaztelera jakin behar dela dio Konstituzioak. Euskal Herriko izateko, ordea, ez da jakin behar euskararik; hori ederto dakite erdaldunek. Gainera, edozein hizkuntza, adierazteko eta komunikatzeko tresna izateaz gainera, bereizgarria ere bada. Eguneroko bizitzan, banaketarekin, euskaradunen eta erdaradunen arteko harresiarekin egiten dugu topo. Berez, euskaraz bizi direnen artean hizkuntza lotura da; oster, muraila gertatzen da erdaldunen eta euskaldunen artean.

Hala ere, euskararen gainean adierazitakoarekin ez ditugu baztertzen beste faktore garrantzitsu batzuk, euskal komunitatearen eraikuntzan eragin itzela izan dutenak; hala kulturalak, sozio-ekonomikoak nahiz politiko-ekonomikoak.

Ximun Fuchsek idatzi du⁽²⁾: “Mundua marrazteko zein komunitatea eraikitze, herrigintzaren eta naziogintzaren giltza da euskara. Eta hortik ulertzen da abertzaletasuna. Abertzale izatea ez da lurralde administratibo baten, mendien, edo pintxo-potearen zaindari sutsuarena egitea. Hori baskismoa deitzen da”.

Gaur egun Baskonia edo Euskal Herria izendatzen dugun lurraldearen mugak ere euskaraz berba egiten den lurraldeen inguruan ipintzen dira, kanpoan utziz lurraldeak euskara historikoki erabili izan denak.

Azken batean, euskaldun garenok gorde egiten ditugu hizkuntzan herri gisa izan ditugun iraganeko oihartzunak, ohiturak, portaerak. Beraz, ederto baten dakigu euskara ez dela -ikasgeletan sarri irakasten den moduan- gramatika hutsa, zeren amets egiteko berbeta ere baita, maitasuna berbalizatzeak; ohe buruan umeei Mari Anbotokoren ipuina kontatzeko.

Argi bezain garbi esanik, euskara da euskaldunen mundua, ezen, euskaldunok euskara gara.

(1) Koldo Mitxelena, *La lengua vasca*, Editorial Vizcaina, S. A. 1977.

(2) *Berria* egunkaria. 2022ko azaroak 2a.



Oilasko-risottoa perretxikoekin



a: Bilguun Bayarmagnai (Pexels)

Osagaiak:

- Oilasko-bulark bat
- Kipula bat
- 400 g perretxiko
- 2 katilukada arroz
- Kopa bat ardo zuria
- Oilasko- edo barazki-salda
- Oliba-oliao
- Gatza
- Piperbeltz beltza
- Gurina
- Parmesano gazta

Prestatzeko era:

Salda su txikian ipiniko dugu berotzen. Kipula txikituko dugu, oliba-olio apur batean ipini, eta su gozoan bigundu dugu. Gorritzen hasten denean

gehituko ditugu perretxikoak. Azken horiek egiten diren bitartean, oilasko-bularra txikituko dugu, eta gatza eta piperbeltza botako diogu; gehituko dugu. Oilaskoa eginda dagoela, arroza gehituko dugu, eta minutu pare batean eragin, harik eta arroz-aleak garden bihurtzen hasten diren arte. Ardo zuria bota, eragin, eta ontzikada txiki bat salda bero botako dugu. Arroza sikatzten denean, beste ontzikada txiki bat salda botako dugu; bitartean, egurrezko koilara bat erabilita eragingo dugu arroza. Urrats horrek 18 minutu inguru iraungo du. Dena dela, denbora-tarte horretan arroza probatuz joango gara eginda egon arte. Eginda dagoenean, koilarakada bat gurin eta hiru koilarakada Parmesano gazta (arraspatua) gehituko ditugu. Eragingo dugu. Mahaira ateratzeko, gazta-zatiak ipini ahal ditugu arrozaren gainean.

Etxeko sukaldaritza

Sobao- eta mailuki-budina


t: M. Lekerika

Osagaiak (sei pertsonentzako):

- 300 g mailuki (garbituak eta zatituak)
- 200 g azukre
- 5 arrautza
- 150 ml esnegain
- 500 ml esne gaingabetua
- Gurina
- 250 g sobao

Prestatzeko era:

Mailukiak 100 gramo azukretan ipiniko ditugu bi orduan. Beste aldetik, budinak egiteko moldea gurinez igurtziko dugu, eta labeko papera ere gurinez igurtziko dugu. Moldea paperaz estaliko dugu. Sobaoak luzetara ebakiko ditugu (5 mm-ko lodiera), eta moldean ipini. Mailukiak xukatuko ditugu eta almibarra gordeko dugu. Sobaoen gainean mailuki batzuk ipiniko ditugu; gero sobaoak, mailukiak berriro, sobaoak... Ontzi batean irabiatuko ditugu arrautzak, esnegaina, esnea, mailuki-almibarra eta 100 g azukre. Nahasia gainetik botako dugu eta berriro ipiniko ditugu sobaoak. Labeko paperez estali, eta labe beroan sartuko dugu 40 minutu inguru 190 gradutan. Eginda dagoela, hozten utziko dugu atera baino lehen.



Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Poema eta abesti guztiak
(Txalaparta), Xabier Lete
Bergaretxe.

–Zaldi berdea (Ataramiñe), Jose
Mari Sagardui Moja.

–Hodeien gaineko aldean
(Txalaparta), Bertol Arrieta
Kortajarena; Ilustratzailea
Sandra Garayoa Cotera.

–Gari eta goroldiozko (Susa),
Anari.

LITERATURA: GAZTEAK

–Nur eta espazio-ontzia (Erein),
Toti Martínez de Lezea. Ilustratzaile-
lea: Ivan Landa Hernández.

–Kirun karun pek (Txalaparta),
Jon Suarez Barrutia. Ilustratzailea:
Malen Amenabar Larrañaga eta
Mariñe Arbeo Astigarraga.

–Itzalen dama eta patxi bakallu
(Elkar), Urtzi Leonet Santa Cruz.
Ilustratzailea: Iñaki G. Holgado

Sudokua

				3			5	7
5	4		8	9				6
					4		9	
	7					4		2
				6		3		
			9	8		6		
	2	3						8
		6		7		9		4

4	2	6	3	7	5	9	8	1
8	7	5	1	4	9	3	2	6
3	1	9	2	8	6	4	5	7
5	8	3	6	9	7	2	1	4
2	9	4	8	5	1	6	7	3
1	6	7	4	2	3	5	9	8
9	3	2	7	6	8	1	4	5
6	4	8	5	1	2	7	3	9
7	5	1	9	3	4	8	6	2



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu



94 480 09 09



ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE



EGUNEKO MENUA

lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Erakusketak

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 12tik 23ra, 16:00etatik 20:00etara, Anguleri kultur etxean.
- > Auto klasikoak. Abenduaren 18an.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: *Gu gabe ere* poesia-errezitaldia, Itziar Ugarteren eta Mikele Landaren eskutik. Abenduaren 22an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Umeentzako tailerra: Gabonetako eskulanak. Abenduaren 17an, 11:30ean, liburutegian.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > Bea Egizabalen elkarriketa. Abenduaren 3an, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean. Euskararen Egunaren harira.
- > Zinekluba: Bego Vicariok eta Hauazkena taldeak egindako sei lan. Abenduaren 20an, 19:00etan, udaletxean. Bea Egizabalen elkarriketa. Abenduaren 3an, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean. Euskararen Egunaren harira.



Irteerak

Zamudio

- > Durangoko Azoka. Abenduaren 8an, 09:30ean (14:30ean itzuliko da). Izena emateko azken eguna: abenduaren 5a, Gaztestazioan. Prezioa zamudioztarrentzat: euro bat.

Musika

Derio

- > XXXVI. Gabon-kanten jaialdia. Abenduaren 17an, 20:00etan, San Isidro elizan. Ipar Alde abesbatzaren eskutik.
- > Izar Argia abesbatzaren eta Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Abenduaren 20an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Olaia Inziarte. Abenduaren 4an, 18:30ean.
- > Izar Argia abesbatzaren eta Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Abenduaren 22an, 19:00etan, Andra Mari elizan.

Lehiaketak

Zamudio

- > Bideo-jokoak. Abenduaren 10ean, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > Futbol-mahaia. Abenduaren 17an, 19:30ean, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Postal-lehiaketaren sariak banatzea. Abenduaren 16an, 18:00etan, eskolan.



Bestelakoak

Derio

- > Odola ematea. Abenduaren 21ean, 16:30etik 21:00etara, anbulatorio ondoan. Odol Argiak antolatua.

Zamudio

- > Sexu-transmisiozko gaixotasunei buruzko informazioa. Abenduan, Gaztestazioan.
- > Urtarrileko programazioa antolatzeko batzarra. Abenduaren 2an, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > Taloa dastatzea. Abenduaren 3an, 19:30ean, Gaztestazioan. Euskararen Egunaren harira.

Larrabetzu

- > Umeentzako irakurketa-saioak. Abenduaren 1ean, 16:45etik eta 19:30era, Anguleri kultur etxean. Izena ematea aurretik egin behar da.

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Buzkai)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua duen

-Especialitatea:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

GABONETAKO LOTERIA

40229

LARRABETZU

- ALIPROX:
Iturrikoetxe Etxetaldea, 2-3
- ESTANKOA:
Andra Mari Kalea, 1
- ETORKI TABERNA:
Andra Mari Kalea, 1
- GURE ETXEA TABERNA:
Goienkale, 20
- FOTERI TABERNA:
Andra Mari, 22
- ARETXABALA TABERNA:
Andra Mari, 8
- BATZOKIA:
Askatasuna Plaza, 3
- TXISPAMENDI OKINDEGIA:
Gaztelumendi, 1

LEZAMA

- GRISSOM TABERNA:
Garaioltza, 121B
- OXANGOITI TABERNA:
Aretxalde, 54
- LEZAMAKO BASERRITARREN
ALKARTEA:
Aretxalde, 21
- JOSUNE DENDA:
Garaioltza, 74
- ENAITZ TABERNA:
Garaioltza, 74C
- GOXO-GOXO LOHITZUN:
Garaioltza, 77

ZAMUDIO

- FERNAN TABERNA
Gorbea, 3
- BIDEGORRI TABERNA
Txinbo, 9
- PIKOTEO TABERNA
Leizaola Lehendakaria, 6
- CRAZY GUITAR
Agirre Lehendakaria Enparantza, 2
- TXANTXANGORRI
Txantxangorri, 2

DERIO

- TIK TAK
Bestorrene, 5
- ADARVE
Sollube, 2
- TXAPAS TABERNA
Bestorrene, 8

SONDIKA

- NEXIS
Iturrigane, 1



NEKAZAMUDIO 03-12-2022

ABENDUKO LEHEN ZAPATUE

BERTOKOAK

ORTUARIAK

ESNEKIAK

MERMELADAK

TXAKOLINA

KARAKOLAK

OGIA

ESTIA

TXARRIKIAK

KONBIDATUAK

LAGUNANDRE TALDEA

(Dirua biocruces iker-
lariantzako izango da)

ARTISAUAK

Kutuxka

Etxbitxi Art

EROSLEEN ARTEAN OTZARA BATEN ZOZKETA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Antolatzailea / Organiza



Laguntzailea / Colaborador

ZAMUDIOKO
LUR LANGILEEN
ETXEA

Laguntzailea / Colaborador

